KIROLA: FELIX IÑURRATEGI BALTISTAN FUNDAZIOKOAK GUREAN /10

Goienkaria

EGUENA • 2004ko abenduaren 23a

V. urtea • 182. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

JON SALABERRIA / BATASUNAKO KIDEA

"Orain daude baldintzak, nahiak, gogoak eta beharrak konponbide prozesu bati ekiteko" **/8-9**

ASTEKO GAIA: BESTE HERRI BATZUETAKO OHITURAK

Gabonak ospatu bai, baina bestela

Gabonak Gabon… baina ez guztiendako berdin. Beste herrialde batzuetatik etorri eta gurean bizi diren hainbat lagunek ere Gabonak ospatzen dituzte.

Euren jatorrizko herrialdean, ordea, Gabonak beste modu batera ospatzen dira, aldaketa gehiago edo gutxiagorekin, eta horien berri jaso gura izan dugu. Kanada, Nigeria, Holanda eta Hong-Kongen jaiotako lagun banak euren tradizioen berri ematen dute aste honetan. **/3**

IKER BARANDIARAN

Hotzari aurre egin zion Santamas Egunak

Udalaren, kultura taldeen eta Santamas Komisiñuaren arteko tirabirak direla-eta, joan den zapatuan zenbaitzuk jaiak aurreratu zituzten. Hala ere, eguaztenean egin zuten ohiko azoka eguna. Bestetan baino jende gutxitxoago ibili zen arren, giro polita izan zen Arrasaten; eta kanpokoak zein herrikoak gustura asko ibili ziren baserritar, artisau, abeltzain eta bestelakoen artean. Produktu tradizionalak ikusteko, dastatzeko eta erosteko aukera paregabe eskaini zuten Arrasateko kaleetan bat egin zuten 240 bat saltokik. Horiekin guztiekin batera, herri kirolendako tartea ere izan zen, eta jakina, kaleak bizi-bizi ipini zituzten trikitilari eta bestelako musikariek. **/4**

ARETXABALETA

Pozik geratu ziren etxebizitza sozialen 180 irabazleak, atzo

Aurpegi alaiak ikusi ziren atzo goizean, eguaztena, Aretxabaletako kirol etxean, notarioak etxebizitza sozialen zozketako 180 irabazleen izenak irakurri ahala. Asko jota, apiril aldera aurkeztuko dira planoak. Anekdota bat izan zen: izan ere, notarioari laguntzen zebilen mutilari ere etxebizitza tokatu zitzaion. **/7**

ARRASATE

Taldea osatu dute Jon Agirre presoaren alde

Jon Agirre preso aramaioarraren aldeko herri ekimena sortu dute. Hain justu ere, Jon Agirreren Arrasateko eta Aramaioko lagunek eratu dute taldea. Herri ekimenaren izaera irekia da, bultzatzaileen esanetan. 24 urte daramatza kartzelan Jon Agirrek, eta orain dela hamar urte bete zituen zigorraren hiru laurdenak. **/5**

Potemkin, Muted eta Sharon Stoner, urtarrilaren 14ko finalean

Musika bikainez, lehia handiz eta ezuste atseginez beteta egongo da Danbaka musika lehiaketako finala, Elgetako Espaloia kafe antzokian, urtarrilaren 14an.

Alde batetik, Potemkin, Sharon Stoner (Oñati) eta Muted (Arrasate-Abadiño) talde finalistek 45 minutuko emanaldi bana egingo dute, ea zeinek irabazi. Horrez gain, Split 77 taldea gonbidatu du antolakuntzak, eta gaua girotzen lagunduko du kontzertu batekin. Eta beste hainbat sorpresa atsegin izango dituzte ikusleek. Urtarrilaren 14ra arte!

DANBAKA

URTE BERRI ON!

GOIENKARIA egiten dugunok oporrak hartuko ditugu ondorengo egunotan. Urtarrilaren 10ean itzuliko gara *Asteleheneko Goienkaria*-rekin, eta urtarrilaren 14an egubakoitzetakoarekin.

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6 • HERRIZ HERRI/7 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-18 • HARPIDEDUNEN TXOKOA/19 • SAILKATUAK/20 • ESKELAK/21 • TELEBISTA/22



Zorionak eta urte berri on!

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Lau kontinente eta Gabonak ospatzeko lau ikuspegi ezberdin

Kanada, Nigeria, Txina eta Holandatik gurera etorritako lau lagun

EDU MENDIBIL

Gabonen atarian, beste herrialde batzuetatik gurera etorritako lau lagunengana jo dugu, jaiak nola ospatuko dituzten jakiteko. Hona hemen jasotako irizziak.

SYLVIE SCHIETTEKATTE / KANADA

"Gabonetan familia eta elurra sumatzen ditut faltan"

Montrealetik 100 bat kilometrora dagoen Magog herrikoa da Sylvie. Gabonak, Kanadan, orain dela bederatzi urte ospatu zituen azken aldiz. Batez ere, sasoi honetan familia eta elurra faltan sumatzen dituela esan digu: "Katolikoak gara eta Kanadan ere familian ospatzen ditugu egun hauek. Jendeak distantzia luzeak egiten ditu familiakoekin elkartzeko. Bestalde, egun aproposak dira eskiatzeko, umeekin elurretan jolasteko edo izotzean patinatzeko. Elurra Gabonetan ikaragarri gustatzen zait, gustura hartuko nuke Kanadarako hegazkina... Dena den, hemen ere gustura ospatzen ditugu Gabonak, Santamasetan hasita. Giro ederra egoten da egun horretan Arrasaten, eta polita da seme-alabak baserritar jantzita ikustea. Gabon egunean, Goikobalu abesbatzarekin kantuan ateratzean ere primeran pasatzen dut".

Hemengo eta Kanadako Gabonak antzekoak direla diosku: "Kanadan, Gabon gauean, goizeko ordu bietan, mezetara joateko ohitura dago. Handik bueltan, etxean egoten gara, giro ederrean, gau osoan, Bizarzuri etorri arte... Denok batera zabaltzen ditugu opariak goizean". Olentzero ere gustuko du Sylviek, Bizarzuri gogoratzen baitio. Kartarik bidali ez dion arren, teleskopio bat gustura jasoko lukeela dio. Izan ere, izarrak atsegin dituela esan digu Sylviek.

AZUKA IGWEZE / NIGERIA

"Erresidentziako lagunekin ospatuko ditut Gabonak"

Oñatiko Unibertsitatean soziologia ikasten dihardu Azukak, irailetik. Lehen aldiz, bere jaioterritik kanpo igaroko ditu Gabonak, ikaskideekin batera, erresidentzian. Lagunez eta familiaz gain, Nigeriako janaria igarriko du faltan: "Nigerian, ohikoa da Gabonetan ezkontza tradizionalak egitea eta, era berean, komunitaterako lanak egiten dira, auzolanean. Gure familian protestanteak gara, eta Eguberri egunea,n goizez mezetara joateko ohitura daukagu. Iluntze aldera, berriz, lagunak eta familiakoak etortzen dira etxera, zerbait hartzera". Oraindik ez du elurra ikusi Azukak. Eguraldi iragarpenei kasu egiten badiegu, beharbada hori izan daiteke jasoko duen oparietako bat. Martxoan Nigeriara bueltatzen denerako izango du zer kontatu lagunei eta familiari.



IKER BARANDIARAN

Sylvie Schiettekatte Mikel eta Leire seme-alabekin.



SUSANA ARRESE

Azuka Igweze nigeriarrak Oñatiko Unibertsitatean dihardu.



MARIA AGIRRE

Humphrey Martinak Baltasar erregearena egiten du Eskoriatzan.

IKER BARANDIARAN

Dickie, Juan senarra eta Dorleta eta Markel seme-alabekin.

HUMPHREY MARTINA / HOLANDA

"Kabalgatan ederki asko pasatzen dut haurrekin"

Hagakoa (La Haya) jaiotzez, aspaldian eskoriatzarra dugu Humphrey; 1980ko hamarkadan hasi zen etortzen eta orain dela urte eta erdi erretiratu zenetik Eskoriatzan bizi da. Hemen ospatu izan ditu Gabonak azken urteotan, Uruguen baserrian: "20 lagun inguru elkartzen gara, emaztearen familiakoak. Holandarekin alderatuz, Gabonak nahiko antzekoak dira. Han, abenduaren 5ean, San Nikolas egunez egiten dira opariak eta abenduaren 25ean eta 26an izaten dira familiako ospakizunak". Aurten ere Eskoriatzako Errege Kabalgatan parte hartuko du Humphreyk, Baltasar erregearena egiten. Haurren artean ederki asko pasatzen duela esan digu, haien eskaerak jasotzen. Berak ere badu eskaera bat 2005erako: "Osasuna eta bakea. Hori litzateke opariric ederrena".

DICKIE AGIRIANO / TXINA

"Gabonak lagunartean ospatzen dira Hong-Kongen"

Debagoienera etorri aurretik, Chicagon bizi izandakoa da Dickie. Handik ohitura bat ekarri zuen, Gabonetan indioilarra gertatzearena, hain zuzen. Hala ere, horretarako denbora asko behar dela-eta, aurten beste zerbait gertatuko dutela esan digu. Bere senarraren familiarekin ospatuko du Gabon gaua: "Hemengo plater tipikoren bat afalduko dugu, nire amaginarrebak, Asiakoa baino, euskal sukaldaritza gustuko du-eta", dio umorez.

Gabonak gustuko ditu Dickiek: "Haurren ilusioa, familiarekin elkartzea, egoten den giroa, opariak...". Hong-Kongen, bere jaioterrian, ama eta bi ahizpa ditu. Haiek mezetara joaten dira Gabon gauean, afalostean. Erlijio askotako jendea bizi da han (sei milioi biztanle dira) eta jeneralean lagunartean ospatzen dira Gabonak Hong-Kongen: "Jendea dotore janzten da eta kanpora irteten da Gabonak ospatzera; giro bikaina egoten da kalean, goizaldera arte". Urte berria, berriz, familiarekin ospatzen dute. Otsailaren 9an iritsiko da urte berria txinatar egutegian.

GOIENKARIA
Eguena / 2004ko abenduaren 23a

Egun batez, kaletarrak baserri giroan murgildu ziren Arrasaten

Artisauak, baserritarrak, ganaduzaleak… guztira, 240 bat saltoki izan ziren

ARRASATE PRESS

Abenduaren 22ak Santamas jaia ekarri ohi du Arrasatera. Zailtasunak zailtasun, aurten ere halaxe izan da. Inguruko eta urrunagoko baserritarrek, ganaduzaleek, artisauek, eztizaleek…, etxeko produktuekin azoka ederra egin zuten.

Berrehun saltokitik gora izan ziren Santamas Egunean. Hotza egin zuen arren, ateri egotea eskertu zuten bisitariek. Horren harira, esan beharra dago besteetan baino jende gutxitxoago ibili zela eta baserritar jantziak ere gutxiago izan zirela. Edozelan ere, baserritar giro jatorra nagusi, arrasatearrak zein kanpotarrak gustura asko ibili ziren saltokiz saltoki. Horien artean, kaleko txikienek ganadu eta hegazti mota asko lehenengo aldiz ikusteko aukera izan zuten. Besteak beste, oreinak eta txerri-kuma jaioberriak izan ziren protagonista. Kirolzaleek Zaldibar pilotalekua bete zuten. Eta kalean ez zen girorik falta izan zanpantzarrei, talogileei, trikitilariei… esker.

LEHIAKETAK ETA IRABAZLEAK

Azokarekin batera, gazta, barazki, fruta, ezti eta pintxo lehiaketa ere izan ziren. Itxura, zaporea, usaina… kontuan hartu zituzten onenak aukeratzeko orduan. Honako hauek irabazi zuten: barazki lehiaketan, Antzuolako Tomas Larrañagak; fruta lehiaketan, Mutrikuko Antonio Iparragirrek; herriko saltokirik onena, Bedoñako Jose Lonbidek; ezti onena, Arrasateko Jose Luis Azpeitia; pintxo lehiaketan, Xaramela tabernak; gazta lehiaketan, Zeraingo Maria Angeles Iñurrategik eta ogirik onena, Bedoñako Josune Etxabek. Epaimahaian pertsona entzutetsuak izan ziren, tartean, ibarreko jatetxe ezagunetako sukaldariak (Zelai Zabal, Belaustegi, Arteaga, Sara…) eta Realeko atezain Asier Riesgo.

Hemengo hegaztiekin batera, besteak beste, Portugal, Java eta Gineakoak izan ziren.

25 saltoki izan ziren, 10 Arrasatekoak eta gainerakoak kanpokoak.

Txerriari Bush izena ipini zioten.

Asier Riesgo, epaimahaikide izan zen.

Gaztetxoenek Gorriti eta bere animaliekin ondo asko gozatu zuten.

Lehiaketetako irabazleek oso pozik hartu zituzten udal ordezkariek emandako sariak.

BASTER

Irala z/g, BERGARA
943 76 10 08

Gabonetan, Gure Bezero Fidelendako
Kapritxo Asko Dauzkagu.
Zatoz.

I.A.

Gipuzku Buru Batzarreko presidente Joseba Egibar Bergarako EAJko ordezkariekin.

Bergarako batzokian batu da Gipuzku Buru Batzarra

IRATI AGIRREAZALDEGI

Batzokiaren mendeurrena aitzakia hartuta, Gipuzku Buru Batzarreko kideek Bergaran egin zuten asteroko bilera, martitzenean.

Batzarraren ostean, Bergarako EAJko ordezkariek koadro bat eman zioten opari GBBkoei.

Joseba Egibar Gipuzku Buru Batzarreko presidenteak Bergarako batzokiko kideak zoriondu zituen esanez, "Hemendik 100 urtera ere idatziko da kronikarik. Baina ez da izango oraindik askatu gabeko Euskal Herri baten lelopean, gizon eta emakume askez osatutako herri batean baizik".

BILERA

Eneko Goya Gipuzku Buru Batzarreko kideak esan zigunez, "bileran, hilaren 30ean Legebiltzarrean egingo den bozketaz hitz egin dugu. Zain gaude, Batasunaren eskuetan baitago emaitza, baina gertatzen dena gertatuta aurrera egingo dugu".

Taldea osatu dute Jon Agirre preso aramaioarraren alde

GORKA ETXABE

Jon Agirre preso aramaioarraren aldeko herri ekimena sortu dute. Hain justu ere, Jon Agirreren Arrasateko eta Aramaioko lagunek eratu dute taldea.

Hogeita lau urte daramatza kartzelan Jon Agirrek, eta orain dela hamar urte bete zituen zigorraren hiru laurdenak. 63 urte ditu eta azken urteotan osasun arazo larriak izan ditu. Horregatik, Malagako espetxeko erietxean dago. Hipertensio arteriala, hiperkolesterolemia eta bigarren tipoko diabetesa du, eta odol zirkulazio txarraren ondorioz, ezin da ibili.

Egoera larri hori dela eta, Jon Agirreren Arrasateko eta Aramaioko zenbait lagunek Jon Agirre herri ekimena eratu dute, Agirreren askatasuna lortzeko. Santamas egunean informazio mahaiak eta kartelak jarri zituzten presoaren egoeraren berri emateko. Herri ekimenaren izaera irekia da, eta aurrerantzean zenbait ekintza antolatzeko asmoa dute.

GORKA ETXABE

Bultzatzaileen esanetan, herri ekimenak izaera irekia dauka.

DEBAGOIENEAN LABUR

Arduratuta daude Arrasateko Uribarri elkartekoak

Arrasateko Uribarri erretiratuen elkarteak aditzera eman du elkartean egonezina dagoela, Arrasateko Udalaren erabaki batzuengatik. Batetik, Udalak egoitzan hobekuntza lanak hasi zituenean, elkarteko batzarrak ez zuen astirik izan erabiltzeei aditzera emateko. Are gehiago, Udalaren borondatearen kontra, lanak geldi ei daude. Bestetik, batzarrak ezin izan zuen esku hartu elkartearen zaindariaren aukeraketan.

Autoen ispiluak apurtzeko ohitura salatu dute

Hainbat herritarrek salatu dute gauetan Arrasateko zenbait kaletan autoen ispiluak apurtzen dituztela. Halako azkeneko gertaera joan den eguenean izan zen. Loramendi kalean ilaran zeuden auto guztiei ispiluak apurtu zizkieten. Ez da lehenengo aldia halakorik gertatzen dena. Hala salatu dute Udaltzaingoan.

Leintz Euskaltegiko otarra Aramaiora

Aretxabaletako Leintz Udal Euskaltegiak zozketa egin du astean, eta Eneida Padilla ikasle aramaioarrari egokitu zaizkio otarra eta relaxerako txartela. Otarrean Gabonetako jakiak zeuden, eta relaxerako txartela, berriz, Arrasateko Lirain estetika zentroak emandakoa zen. Euskaltegiko 71 ikasleren artean egin zuten zozketa, baina zozketan parte hartzeko Gabonekin lotutako ekintzaren bat egin behar zuten ikasleek. Eneidaren taldeak intxaur saltsa egin zuen. /M.A

Ibarreko gazte batzarrek Sorgintxuloren alde egin dute

IKER BARANDIARAN

Joan den eguenean, Bilboko Santutxu auzoan zegoen Sorgintxulo gaztetxea itxi egin zuten. Hori salatzeko, ibarreko gaztetxe eta gazte batzarrek hainbat ekintza bateratu egin dituzte egun hauetan.

Euskal Herriko gazte batzarren koordinadorak hala erabaki zuen: gaztetxe bat itxi edo arriskuan jartzen duten bakoitzean, herri guztietan salatu egingo dute hori. Aspaldian ibarreko gazteen batzarra sarritan batzen da, eta ekintza bateratuak egiten dihardute. Horregatik, Atarrabiako eta Iturramako gaztetxeak itxi zituztenean, ibarrean kalera irten ziren.

PRENTSAURREKOA ETA AGERRALDIAK

Egubakoitzean, Debagoieneko gazte batzarrak elkartu ziren salaketa ekintzak adosteko. Zapatuan, Arrasaten jai herrikoiak egin zituzten egunean, gazte batzarreko lagunak pankartak eskuan zituztela tabernen alboan jarri ziren eta esku-orriak banatu zituzten.

Astelehenean, ibarreko hainbat gaztek prentsaurrekoa egin zuten Arrasaten, Herriko Plazan. Besteak beste, EAJ eta ETB salatu zituzten, Sorgintxulo ixteagatik, bata; eta horren berri ez emateagatik, bestea.

SEIN
grupo taldea

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

OÑATI
Tel.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE
Tel.: 943 71 24 25
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABALETA
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 20 04

Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu guztioi.
Zorionak!

Gutunak

Juankar, gezurrak eta bozgorailuak

Espainiako errege-erreginak Arrasaten egon dira eta IU-ko errepublikazaleek ez dute txintik ere esan. EA eta Aralar badaezpada isilik. Itsu, mutu eta gor, ostrukak bezala ezkutaturik. Badirudi MCCren zuzendaritza espainol eta eskuma zaleari aurre egitea oso itsusia dela gurean. Non dira ELA, STEE-EILAS? Non Elkarri? Ez daukazue aitzakiarik zuen epelkeria justifikatzeko. Zoritxarrez, berriz ere agerian geratu da, hemen eta orain, Ezker Abertzaleak soilik egiten diola aurre zapalkuntzari. PNVk eta PSOEk Frankoren ondorengoari alfonbra gorria jartzen dioten bitartean. Lacunza jauna, zure eskuak lixibarekin garbitu beharko dituzu, jakin badakizulako Ignacio laguna; "España huele a culo".

Antza denez, badago ere jende miserablea; "ezker abertzaleak etxera ogia ekarri duen kooperatiba suntsitu nahi du". Gezurra. Ezker Abertzaleak ez ditu, inondik inora, kooperatibek ekarritako onurak ukatzen. Baina MCCren zuzendaritzak bide okerretik garamatza, diruaren ideologiak amildegira garamatza. Beste MCC bat posible dela aldarrikatzen dugu: euskalduna, Euskal Herrian sortua delako; ezkertiarra, gehiengoa langile xumeek osatzen dutelako: solidarioa eta duina, horiek baitira euskal langile ezkertiarraren ezaugarriak.

Joan zen asteko GOIENKARIAn irakurri zitekeen: "Inguruko etxe batetik musika ozen entzuten hasi zen… segurtasun indarrek isilarazi zuten arte". Gezurra. Nondik atera da hau? Gezurrak esatea besterik ez dakien komunikabideetatik? Ala "segurtasun indarren" bertsio ofiziala izan da?

"Segurtasun indarrek" ez zuten bozgorailurik isilarazi. Segurtasun neurriak itzelak omen ziren. Kolore guztietako poliziak orpoz orpo lanean. Segurtasun pribatua, Espainiako polizia, Guardia zibila, Espainiako armada, Espainiako polizia autonomikoa eta polizia munizipala. Baina arrasatear batzuen inteligentziak eta sormenak guztia hankaz gora jarri zuen. Balzak bere frankotiratzaileak gau osoan zehar alkoholemia kontrolak egitera zigortuko zituen, ez baitzuten atzeman nondik zetorren isilarazi nahi duten herri baten garrasia. Segi-tik harrotasunez esan dezakegu, laster, KD madarikatu hori salgai jarriko dugula.

Amaitzeko, Arrasateko herriari zuzendua: ez ditugu onartuko ostegunean kalean entzun ziren zurrumurruak: "Honen arreba harriak botatzen ibili da, beste hau autoak gurutzatzen, honek bozgorailuak jarri ditu bere etxeko leihoetan", eta abar. Horrelako kontuekin Uribe auzoko familia errugabeak zigortzea lortuko duzue. Baita zapalkuntzari aurre eginaz bere askatasuna jokoan jartzen duten neskamutil paregabeak ere. Beraz, ixo! Horiek ez dira lagun artean hitz egiteko kontuak. Azken kontutxo bat, sumiso espainol batzuek intsumisioaren enparantzako plaka kendu dute. Ai, inuzenteok, gurekin jai duzue! (Edo, hobe esanda, kriston lana!). Inteligentzia eta kuraia!

ARRASATEKO SEGI
Arrasate

Demokraten gaitzespenak

Nafarroa osoak eta estatu espainol-frantses arteko gatazka luze eta mingarri honetan indarkeriaren gaitzespena konponbiderako harri filosofalean bihurtu dela sinestarazi nahian dabiltza zenbait alderdi.

Esango al dit norbaitek europar batasunak zenbat aldiz gaitzetsi duen Israeleko armadak palestinarrei egindako sarraski gupidagabeak? Baina gaitzespen hutsetan geratu direnez, arazoak bertan jarraitzen du.

Gizon batek emakume bat bortxatzen duenean, poliziak erasoa gaitzetsiz gero, zerbait konponduko litzateke?

15 eguneko epean, Gasteizen bi langile hil dira eraikuntza alorrean segurtasun neurri faltengatik. Agian, 52 urteko J.R.D. hil zenean, demokraten hiruko erregela aplikatu izan bagenu, hots, hilketaren gaitzespena, 40 urteko elektrizista ez zen hirugarren solairutik eroriko. Euskal preso politikoek eta beraien senide-lagunek pairatzen dugun dispertsio politikan, berriz, Batasunaz gain, beste alderdi batzuek ere ez dute gaitzesten krudelkeria hau. Gupidagabeko asteroko erruleta hiltzaile hau guztiek gaitzetsiz gero gelditukо dela sinestaraziko digute?

Genero indarkeriaren aurrean ere ez dugu inongo neurririk hartuko. Joan gaitezen denok Basaurira eta Marivi Lopezen etxe aurrean oihu egingo dugu "gaitzesten dugu". Horrela emakume guztiak lasai egongo dira.

Irakeko okupazioa, kurdu eta txetxeniarren aurkako genozidioa, Afrikako gose eta hiesa, espekulazioa, kanpo zorra, alderdien legez kanporatzeak, esplotazioa, transgenikoak, tortura…, ene zenbat arazo konponduko genitzakeen gure demokratek asmatutako harri filosofalarekin.

Baina ez, aitzakia nazkagarri bat besterik ez da. Oso ondo eta eroso bizi diren jauntxoek beraien estatusa agian galdu egingo duten beldurrez asmaturiko aitzakia besterik ez da gaitzespena.

Gizartea tontotzat hartzeko garaia pasa da eta arazoak, borondatez, ausardiaz eta konpromisoz konpontzen dira. Neurriak hartuta ekiditen dira dispertsioa, gosea, gatazkak, istripuak, genero indarkeriak, suteak, gaixotasunak, uholdeak, eta abar, eta abar. Ez gara ez inozoak ezta tontoak ere eta gatazka konpontzen den egunean alferrikako sufrimendu luzapenaren ardura gaur gaitzespenak eskatzen dituztenengan eroriko da. Hori dela eta, denok borondatea, ausardia eta konpromisoa hartzeko momentua dela iruditzen zait sufrimenduaz behingoz amaitzeko.

Portzierto, ikusi al zenuten lehengo egunean Josu Jon Arbolapetatik paseatzen? Ba espaloia igotzera zihoala atzera begiratu eta hanka estolderia baten tapa falta zen zuloan sartu zuen izugarrizko aberia eginez. Ba al dakizu zer egin zuen? Istripua gaitzetsi!

Baina uste dut, bihurritua dela eta bere erosotasuna galdu bezain laster, neurriak hartzeko borondatea piztu zitzaiola zentzuzko beste pertsona orori bezala; ausardiaz bete eta ospitalera joateko konpromisoa hartuko zuela.

EHNA: H1785649K
Aramaio

'Sagatz'

Hitz berri bat sortu da euskararen munduan: *Sagatz*. Oñatiko Ganbara abesbatzaren CDaren izena da. Baina hori baino zerbait gehiago ere bai. Zer da bada Sagatz? Alferrik arituko zarete Mitxelenaren Orotariko Euskal Hiztegian hitz honen esanahiaren bila; berdin Azkuerenean edo etxean izan dezakezuen beste edozein hiztegitan. Ez duzue aurkituko.

Sagatz hitzak sahats eta sagarraren (edo hobe sagarrondoaren) sintesia irudikatzen du. Sagarrondoaren udaberriko loraldia, freskotasuna eta gaztetasuna, sahatsak nonahira zabaldua suzko erruberen eran batzuetan, bere abar leun eta sakabanatuen bidez, eta mendian gora beste batzuetan ahuntza bakarrik iritsi daitekeen tokitara iristen denean. Udaberriaren eta gaztaroaren alaitasuna, bizinahia eta sua adierazteko ere balio du. Sua denez, eztabaida eta haserreak ere bai. Zergatik ez?

Baina Sagatz hitzaren esanahia hori guztia baino dezente sakonagoa da. Sagatz hitzak hainbat urtetan zehar gogoz eta ilusioz egindako lan neketsua adierazteko ere balio du. Ostiral gauetako eta igande arratsaldeetako saio luzeak bezperakoa hobetu nahian; utopia baten atzetik autobusean egindako kilometro amaigabeak. Hori guztia ere bada Sagatz.

Azkenik, gure belarri, garun eta bihotzak laztandu eta bustitzen dituen oparia CD eran. Horra Sagatz!

Mila esker Oñatiko Ganbara Abesbatza, egin diguzuen opariagatik. Mila esker behin baino gehiagotan hunkiarazi gaituzuelako. Mila esker ere harro sentiarazi gaituzuelako.

Sagatz! eta segi orain arte bezala. Bihotzez eskertuko dizuegu.

I.A.
Oñati

Hemeroteka

'Lokeria'

Euskalduna jokozale itsua da. Itsuegia koherentziari men egiteko. Bazekien zerbait Galarretan bankuan baino diru gehiago ikusten zela zioenak. Ez zituen alferrik egin disimulatu ezinezko zorrak.

Zorrak zor eta lepoa lodi dio esaerak. Lepoloditzeko asmoz erosten omen da Gabonetako loteria. Zenbakia gustatu zaigulako. Norbera izan ezik mundu guzia aberastu den inguru batean bizitzea tortura litzatekeelako. Boleto bat erregalatzea esperantza oparitzea delako... Aitzakia franko, tentazio kontsumituaren kontzientzia lasaigarri. Diruak diru, ludopatak baitirudigu. Urte guztiko borreroari debaldeko dirutza emateko gertu. Errenta-aitorpenez ito gaituenari zerga iraultzailerik behinena ordaintzeko prest. Auskaloren ezagunari lau sos tokatu zitzaizkiolako, dena galtzeko pronto. Kartera eskuan. Beti gastuan. Sariak urruti jaustea espero dut. Iruzur bat dela sentitzeko bezain urruti. Albaceten edo Cadizen. Salamancan edo Valentzian. Lanzaroten, Levanten, Madrilen... Ez duzue besterik merezi.

SUSTRAI COLINA
Berria (2004/12/22)

Loteria

Gabonetako loteriaren partiketak markatzen du gurean ere neguaren etorrera, zorionez edo zoritxarrez. Behinolako erritu paganoei leku hartu die aspaldidanik Fortunaren gurpilak. Estatuak antolatutako negozio borobilenetakoa baita loteria, probabilitatearen arau hutsei jarraikiz askoren diruarekin gutxi batzuk aberasteko bide ematen duena.

Azken hamarkada hauetan, baina, gurean loteriak bestelako traza hartu duen zantzurik bada. Loteria goibelago, ilunago, saminagoa. Oraingoan hau, hurrena bestea, poliziek aldameneko portaletik auzokoa eraman dutela ikusita, tokatu izanaren zentzua guztiz bestelakoa da. Epaitu gabekoen kartzelaldi denbora nola luzatzen den ikusita, atxiloketen maiztasuna eta bolumena kontuan izanik, euskal gizartean atxilotua izateko probabilitateak muga guztiak gainditzen ditu. Justiziaren kapritxoaren menpe. Loteria partitzen duen Fortunaren pare, justizia itsu agertzen zaigu ikonografian. Kasualitatean sinestea gaitza da ikusitakoak ikusita. Itsu-itsuan epaitzen dituzte euskal herritarrak azken urteetan, bai eta kartzelan hilabete, urteetan epaiketaren zain mantendu ere. Tokatu zaionak ederki asko daki hori. Loteria bainoago, erruleta errusiarra dirudi.

AITZPEA LEIZAOLA
Berria (2004/12/22)

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

OÑATI

San Martin egoitzako langileek akordio duina eskatzen dute

Dituzten lan baldintzak hobetzea eta lan akordio duina eskatzen dute San Martin egoitzako 15 langile azpikontratatuak. Eskualdeko gainerako egoitzetan dituzten lan baldintzak eskatzen dituzte. Enpresak, aldiz, soldataren %2,8ko igoera eta hamar lanordu jaistea eskaintzen die. Langileak ez daude ados eskaintza horrekin, ez delako euren eskakizunera hurbiltzen. Hilaren 29an hiru orduko geldialdiekin hasiko dira, eta urtarrilean egingo duten bileran ezer adosten ez badute, greba egingo dute. /O. E.

MARIA AGIRRE

ARETXABALETA

Etxebizitza sozialen zozketa egin zuten eguaztenean

Kirol etxetik Lausittara bitartean egingo diren 187 etxebizitza sozialen zozketa egin zuten atzo, eguaztena. Banan-banan zerrendan zeuden 292 lagunen izenak atera baziren ere, lehenengo 180 lagunek izango dute era horretako etxe bat erosteko aukera. Beste zazpi etxebizitza elbarriendako gorde dira, eta dagoeneko batek egin du eskaria. Interesatuta dauden elbarriek hilabete dute izena emateko.

Orain, zozketaren emaitza ikusgai dago udaletxean eta Bruesa eraikuntza enpresak herrian duen bulegoan. Arritxu Oliden alkateak adierazi duenez, erregistroan ere begiratuko dute horrelako etxebizitzaren bat egokitu zaienek aurrez etxebizitzarik ba ote zuten. Etxebizitzen planoak ere laster aurkeztuko dituzte. /M.A

ESKORIATZA

Gabon giroa nagusituko da bihar goizetik arratsaldera arte

Olentzero, beste herrietara bezala, bihar iritsiko da Eskoriatzara. Baina eguna hasteko, herriko haurrak plazan elkartuko dira abesteko, eta ondoren, trikitixa eskolakoek kaleak alaituko dituzte kalejira eginez. Olentzeroren laguntzaileak ere egongo dira Eskoriatzan: 13:00etan joango dira Herriko plazara gaztetxoen gutunak hartzera. Arratsaldeaan, 17:30ean, jaitsiko da Apotzagatik herrira ikazkina. Bestalde, goiz eta arratsaldean gaztaina erreak jateko aukera egongo da Herriko plazan. /Z.V.M.

ANTZUOLA

Udal Liburutegiko bazkideek txartela jasoko dute datozen egunotan

Jaurlaritzaren Kultura Sailak Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren barne dauden udal liburutegien sarea jarri du martxan, eta Antzuolakoa ere sare horren barruan egongo da aurrerantzean.

Funtzionamenduan hainbat aldaketa izango dira. Hala, liburutegiaren erabiltzaileek txartela izango dute; txartel horrek sareko beste liburutegietarako ere balio izango du. Datozen asteotan jasoko dute liburutegiko bazkideek txartela eta beharrezko informazioa euren etxeetan. /AINTZANE IRIZAR

ARAMAIO

Azkenaurreko osoko batzarra egin dute; datorren astean, azkena

Gai dezente landu zituen eguazteneko bilkuran udalbatzarrak. Batzuk aipatzearren, errekan eraikitako pareta botatzeko hirigintza proposamena aurkeztu zieten zinegotziei; datozen bi urteotarako euskara biziberritzeko plana aurkeztu zuten; Euskal Fondoari ematen zaion laguntzaz gain, Hirugarren Munduko beste herrialde bati laguntza ematea aztertu zuten, eta langileen soldataren igoera eskaera aztertu zuten. Horrez gainera, jakinarazi zuten hilaren 30ean ezohiko batzarra egingo dutela, Arexolako lanengatik. /U.M.

ARRASATE

Polmetasa lantegiarekin hitzarmena eta Egitamu Orokorra, batzarrean

Hiru puntu aztertu zituen udalbatzarrak astelehneko osoko bilkuran. Puntuetako bat Polmetasa lantegiarekin sinatu beharreko hitzarmena izan zen. Beste biak, berriz, Arrasateko Egitamu Orokorraren gainekoak.

Bozketa orduan, hiru puntuak onartu zituen udalbatzarrak. Polmetasarekin lotutakoa aho batez. Beste bietan, berriz, udal gobernuak (EAJ, EA, EB eta Aralar) alde bozkatu zuen eta oposizioak (PSE-EE eta PP) kontra.

POLMETASA ARRASATEN

Polmetasarekin lotutako hitzarmenari dagokionez, kontua da enpresa horrek handitzeko beharrak dituela. Eta behar horiek betetzeko Arrasatetik alde egin beharrean, Arrasaten gera zedin lortu gura zuen Udalak. Horren haritik, Polmetasarendako hirigintza hitzarmena onartu zuen astelehenean. Hitzarmen horren arabera, Udalak baliabideak ipiniko ditu enpresak dituen beharrei aurre egiteko. Hain justu ere, planta berria behar du Polmetasak; bakarra, eta asko jota, 2008a baino lehen.

EGITAMUAREKIN, ADOS EZ

Egitamu Orokorrari dagokionez, berriz, udalbatzarrak adostasuna lortu barik segitzen du. Testu bateratua onartu beharra zuen astelehenean, baina oposizioak ez zuen hala egin. Arrazoi nagusia izan zen ez daudela ados Zalduspe inguruarendako aurreikusitako tratamenduarekin. Besteak beste, ospitale berria eskatzen dute. /U.M.

Zertzelada

PSE-EEk eta PPk Debagoienak ospitale berria behar duela esaten segitzen dute; hori dela eta, ez dute Egitamu Orokorra onartu

BERGARA

Herriko hainbat talde kantura aterako dira Gabon egunean, auten ere

Bihar, egubakoitza, ohiturari jarraituz, hainbat talde kantura aterako dira. Ikastetxeez gain, Jardineko bertso eskolakoak eta presoen lagunen taldekoak kalez kale ibiliko dira goizetik. Txapa Irratikoak ere kalejiran aterako dira, ohiko kalabazarekin. Arratsaldean, berriz, Alai Taldea, Gabero eta Orfeoikokideek ere Gabon kantak eskainiko dituzte. Alai Taldeak 20 urte inguru darama Gabonetan. Ohikoa denez, Mizpirualden ekingo diote ibilbideari.

APATXIKO SARI BANAKETA, GAUR

Apatxi gehigarriko sari banaketa ekitaldia gaur, eguena, egingo da San Martin plazan, 17:00etan. /E.M.

ARTXIBOA

Gabon kantak abestera hainbat talde aterako dira bihar.

ELGETA

Iritzi ona azaldu dute Espaloiko ordezkariek sei hilabeteren ostean

Espaloia Kafe Antzokia zabaldu zutenetik sei hilabete igaro dira, eta arduradunek balorazio ona egin dute. "Formulak funtzionatzen du: taberna eta jatetxea ondo doaz, eta horrek laguntzen du kulturako zuloak tapatzen. Parte-hartzea handia izan da emanaldietan", esan zuten. Urte berriari begira ere antolatu dituzte emanaldiak. Urtarrilean *La Ratonera* antzezlana eta Gari abeslaria izango dira. Bestalde, jakinarazi dute bazkide kanpaina abian ipiniko dutela. /I.A.

GATZAGA

Bihar baserriz baserri joango dira gatzagarrak Gabon kantak abesten

Urteroko ohiturari jarraituz, bihar, egubakoitza, Gatzagako neska-mutiko eta gurasoak baserritar jantzita 09:30ean elkartuko dira San Migel plazan. Ondoren, baserriz baserri joango dira Gabon kantak abesten. Eurekin joango dira Olentzero eta trikitilariak. Amaitzeko, herrira itzuli eta elkarrekin bazkalduko dute.

Baina gatzagarrek aurreko astean hasi zituzten Gabonak. Izan ere, herriko plazan jaiotza jartzeko aprobetxatu zuten zapatu goiza. /Z.V.M.

GOIENKARIA
Eguena / 2004ko abenduaren 23a

Jon Salaberria

SOZIALISTA ABERTZALEETAKO LEGEBILTZARKIDEA

"Adostasun eremu zabala falta zaio Ibarretxe Planari"

Herriz herri ari da aurkezten Batasuna bere proposamena, azaroan Anoetan aurkeztu zuen bera. Astelehen iluntzean, Jon Salaberria izan zen Arrasaten lan horretan, Ibarretxeren proposamenaren lehen bozketan abstenitu egin ziren egun berean. Egun hartan ere, auzitara eraman zituen Gipuzkoako fiskaltzak Anoetan proposamena egin zutenak.

OIHANA ELORTZA

OIHANA ELORTZA

Astelehenean egindako lehen bozketan ezustekoa egon zela diote askok. Abenduan 30ekoan ere egongo da?

Guk 30ean mahai gainean jarriko dugu esaten ari garena: beraz, guretako ez dago ezustekorik. Beste gauza bat da ezker abertzalearen posizioaren inguruan manipulazio handi bat egiten ari direla. Ikusten dugu EAJren aldetik dagoela interes handi bat ez bakarrik planaren etorkizunari buruz, baizik eta hurrengo hauteskunde autonomikoei buruz. Euren asmoa ei da 30eko osoko bilkura horretatik kanpaina elektorala zabaltzea, eta ezker abertzalearendako eztabaida politiko hau gauza sakonagoa ere bada. Beraz, 30ean, gure posizioa horixe izango da: esango diogu bai hitzaurreari, bai herri honen irtenbidea aurkituko duen akordio zabal bati, eta berretsiko dugu ezker abertzaleak, ez 30ean, baina ezta balizko kontsulta batean ere estatutu berritu bati ez diola baietz esango.

Zergatik bozkatu zenuten abstentzioa lehen txandan?

Aspaldi esaten ari ginen zein zen gure posizioa Ibarretxe Planaren aurrean. Ezker abertzalean ulertzen genuen plan horren lehenengo zatian badaudela gatazka konpontzeko osagai interesgarriak, baina, aldiz, estatutu berrituarekin ez gaude batere ados. Ikusten dugu, berriro, duela 25 urteko akats bera errepikatzea dela. Aldiz, hori esanda ere, esaten ari ginen ezker abertzalea ez zela izango eztabaida nolabait baldintzatuko zuena, eztabaida blokeatuko zuena. Hala ere, aurpegira botatzen ziguten, batez ere hirukotik, ezker abertzaleak ezezkoaren blokearekin bat egingo zuela, batez ere PSOE eta PPrekin, eta astelehenean erakutsi dugu hori ez dela egia. Ezker abertzalea 25 urtez egon da horrelako eztabaida bat herri honetan irekitzeko lanean, eta orain ireki denean ez gara gu izango atzera botako garenak, ez? Beste gauza bat da eztabaida honek aurrera egin ahal izateko jarri behar dela benetan gatazka konpontzeko norabidean, eta ez hiru alderdik aurrera atera nahi duten proiektu alderdikoian.

Zer falta zaio Ibarretxe Planaren bigarren zatiari?

Adostasun eremu zabal bat. Gatazka konpontzeaz ari bagara, Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozial guztion artean adostu beharko dugu zein den gure herriaren estatus berria. Eta ondoren, akordio hori herritarren esku utzi beharko da. Bigarren zati horretan, Ibarretxeren planak egin duena da hitzaurreko oinarriak hankaz gora jarri. Hor esaten dute Euskal Herria zazpi herriz osatutako herrialdea dela, Euskal Herriak autodeterminazio eskubidea duela eta esaten dute ere, nolabait Espainiarekin elkartze librea nahi dutela. Hor kontraesan nabarmena ikusten dugu. Alde batetik, proiektuaren bigarren alde hori soilik hiru lurralderendako delako, autodeterminazioa baino gehiago, dela herritarrei eskatzea iritzia plan horren inguruan baina ez da soberanian oinarritutako planteamendua.

Datorren urteko hauteskundeak aipatuta, PSOEren *talantea* zuen egoera aldatzeko bestekoa da?

Gure ustez, azken hilabeteetan nahiko nabarmen ari dira gelditzen gauzak. Alegia, ezker abertzaleak bere hausnarketaren bitartez konponbiderako proposamena egin du, mahai gainean jarri du. Ez da gure proiektu politikoa, da konponbidea akordioen bitartez bilatzeko planteamendu politiko bat, prozedura demokratiko bat, eta iruditzen zaigu, beraz, beste eragileek azaldu beharko dutela zein den euren

ABSTENTZIOA IBARRETXEREN PROPOSAMENARI

“Bigarren zatiak atarikoa hankaz gora jartzen du eta estatutu berrituarekin ez gaude batere ados, ikusten dugulako duela 25 urteko akats bera errepikatzea dela”

DATORREN URTEKO HAUTESKUNDEAK

“Zapateroren gobernuak erabaki behar du ea berriro auto errepresibo batean edo behingoz sartzen den gatazka konpontzeko bidean”

GOBERNUEN ETA ETA-REN ARTEKO AKORDIOA

“Iruditzen zaigu 25 urtean ez direla egon gaur egun dauden baldintzak eta akordioa egiteko une ona dela; ikusi behar da gainerako alderdietan borondate bera dagoen”

BATASUNAREN PROPOSAMENAREN ERREAKZIOAK

“Alderdi gehienek ez badute deskalifikatu proposamena eta proposamen serio bat bezala hartu badute, da badakitelako herritarren gehiengoak konponbideak nahi dituela”

benetako borondatea gatazka konpontzeko. Zapateroren gobernuak erabaki behar du ea errepresioarekin jarraitzen duen eta herri honen ukazioan oinarritzen duen herri honi begira egingo duen politika, edo ausartago jokatzen duen eta egoera politikoak sortu dituen baldintzak aprobetxatzen dituen, behingoz, gatazka konpontzeko bidean jartzeko. Gobernu espainolak du azken hitza.

Legez kanpokoak izaten jarraituko duzue?

Hauteskundeetan egotea sistema demokratiko batean oinarrizko eskubidea da. Beraz, Batasunak defendatzen duena da, beste edozein alderdik bezala, hauteskundeetan egoteko eskubidea. Garbi gelditu da azken lauzpabost urteotan Euskal Herriarendako, behintzat, Espainiako demokrazia oso kalitate kaskarreko demokrazia dela eta gure herriaren eskubideen aurrean oinarri-oinarrizko eskubideen azpitik jokatzen ari dela, eta guk diogu ezker abertzaleak ez duela txantaje hori onartuko.

Alderdi gehienek esan dute Batasunaren proposamena zilegia dela. Hurbilketarik egon da beste alderdi eta eragileekin?

Proposamen horrek, gure ustetan, oinarrizko elementuak dauzka lehenago edo geroago gatazkari irtenbidea eman nahi baldin bazaio. Esaten dugu konponbide prozesu bat eraiki behar dela. Horrek eskatzen du pazientzia, denbora, oinarri sendoak jarri behar zaizkio, eta bagenekien alderdien lehenengo erreakzioak ez zirela izango prozesu bat martxan jartzeko modukoak. Hala ere, eta hainbat arrazoi egon daitezke, uste dugu alderdi gehien-gehienek ez badute deskalifikatu proposamena eta proposamen serio bat bezala hartu badute, da funtsean ez horrenbeste euren posizio politiko propioetatik eman nahi izan zuten erantzuna zelako, aldiz, oinak Euskal Herrian dituzten alderdiek badakitelako herritarren gehiengo zabal batek konponbideak nahi dituela. Azken finean, holako prozesu bat mahai gainean adostu beharko da, baina herritarren nolabaiteko aldekotasunak indartsua izan behar du.

Hauteskundeen aurretik Europako Konstituzioaren erreferenduma egingo dute. Ezezkoaren alde zaudete.

Bai, aurka gaude. Europako herrien eta herritarren funtsezko eskubideak ez dira jaso itun konstituzional honetan, eta herriak ez daude Europako Konstituzioan.

“Ibiltzen hasteko baldintza guztiak mahai gainean daude eta akordioa egiteko unea da”

Londresek eta Dublinek akordioa sinatu dute.

Prozesu horretatik asko dugu ikasteko. Hamar urte dabiltza lehenengo akordioa egin zutenetik eta ikusten da prozesua oso konplikatua izaten ari dela eta gaurko egunez ere, oraindik orduan hartu zituzten akordio asko eta asko garatu gabe daude. Adibidez, instituzionalizazioa eta Ipar Irlandako parlamentua gaur egun blokeatuta daude. Egoerak antzekoak dira ildo horretan. Azkenean Irlanda da herri bat bere buruaren jabe izan nahi duena eta Britainia Handiak hori onartu egin zion, baina gero ondoren sortu da bake prozesu bat bere zailtasunak dituena. Guk diogu Euskal Herrian horrelako prozesu bat abiatzerako abiapuntuak Irlandakoaren oso antzekoa izan behar duela: egon behar du akordio bat gobernu britainiar eta IRAren artean egon zen bezala, gobernu espainola, gobernu frantsesa eta ETAren artean. Eta funtsezkoena, egon behar du akordio bat Euskal Herriko indar politiko guztion artean. Dowing Street-eko deklarazioa eta Stormonteko akordioa Euskal Herrian behar-beharrezkoak izango dira.

SAIOA OJANGUREN

Akordioa egiteko unea da?

Uste dugu baietz. Iruditzen zaigu 25 urtean ez direla egon gaur egun dauden baldintzak, nahiak, gogoak eta beharrak konponbide prozesu bati ekiteko. Ezker abertzaleak ere azken urteotan finkatu ditu hainbat oinarri, barne hausnarketa handia egin du eta sakonki apustua egiten du horrelako konponbide prozesu bati hasteko. Beraz, uste dugu baietz, momentua dela. Ibiltzen hasteko baldintza guztiak mahai gainean daude, baina ikusi behar da gobernuaren aldetik eta Euskal Herriko gainerako alderdien aldetik borondate bera dagoen.

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

AZKEN KONTZERTUA

Elgetako Espaloia Kafe Antzokian
Urtarrilaren 14an (barikua)
22:30ean

Potemkin
(Oñati)

Muted
(Arrasate-Abadiño)

Sharon Stoner
(Oñati)

Split 77
(Talde gonbidatua, lehiaketatik kanpo)

Eta beste hainbat sorpresa!

gaztekutxa · Goienkaria · espalola · Arrasate Irratia · Mondragon Unibertsitatea · Elgetako Udala · Goiena.net · Goitb · jakina · Goieskola · Goienkaria · Carrión música · Memesa · Ganesha Tattoo · Irudi Sport

GOIENKARIA
Eguena / 2004ko abenduaren 23a

Ibrahim Rustam: “Mendi Eskola bultzatzea garrantzitsua da guretako”

Alberto Iñurrategik lagunduta, Felix Iñurrategi Baltistan Fundaziokoak izan dira gurean

XABIER URTZELAI

Martitzen eguerdian Felix Iñurrategi zenaren izena daraman fundazioko Shamshair Ali eta Ibrahim Rustam izan ziren gurean, Alberto Iñurrategik lagunduta. Machulun erabilgarriak izan daitezkeen ideiak hartzera eta Euskal Herria ezagutzera etorri dira hona.

Dagoeneko badira hiru urte baino gehiago Felix Iñurrategi Fundazioa lanean hasi zela Baltistango Machulu herrian (Pakistan), eta ordutik hona bi proiektu garrantzitsu bete dituzte: ura eraman dute herrira eta lehendik zegoen Mendi Eskolari bultzada eman diote.

Orain arte egindako lana, baina, ezin da horretan geratu, eta dagoeneko fundazioak baditu beste helburu batzuk. Ibrahim Rustam da fundazioaren presidentea eta Shamshair Ali du bidaia-lagun. Abenduaren 10ean iritsi ziren Euskal Herrira, eta, besteak beste, Tolosa inguruan ibili dira nekazaritzan erabiltzen diren teknikak ikusten. Alberto Iñurrategik azaldu digu zergatik egon diren han: “Garrantzitsua da Machuluko herria zerbait ekoizteko gauza izatea. Han arbeletxeko asko dituzte eta Tolosan ibili dira ikusten hemengo nekazariek nola egiten duten lan, hango produktuei ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzeko.



XABIER URTZELAI

Fundazioko presidente Ibrahim Rustam ezkerrean, eta Shamshair Ali eskuinean.

POLIKI-POLIKI, BAINA AURRERA

Alberto Iñurrategik azaldu digu kosta egin zaiela Machuluko proiektuak egitea, beste kultura batekoak garelako: “Ura eramango genuela esandakoan, Machuluko herritarrek ez zuten sinisten, eta normala da. Euren Gobernuak egin gura izan ez duen lana zergatik egingo dute, bada, euskaldun batzuek?”.

Mendi Eskolan ibilitako 25 ikasle espedizioetan dabiltza dagoeneko

Orain, Machuluko gaztetxoen hezkuntzaren alde egin gura dute lan

Shamshair Ali eta Ibrahim Rustam harrituta zeuden hemen ikusi dutenarekin. Felix Iñurrategi Fundazioak euren herrian egin duen lanaren gainean galdetu diegu: “Orain arte egindako bi proiektuak oso garrantzitsuak izan dira. Mendi Eskola bultzatzea ezinbestekoa da guretako, zamaketari lanetan ibiltzeko oso lagungarria da-eta. Lehen jakintza handi barik egiten genuen lan mendian, eta orain beharrezko materiala daukagu eta eskolan mendian nola ibili irakasten dugu”. Izan ere, hemengo hainbat mendizale izan da hango Mendi Eskolan klaseak ematen: “Dagoeneko eskolan ikasi duten 25 lagun espedizioetan dabiltza lanean, eta horietako zortzi ikasle zortzimilakoetan izan dira”, esan digu Ibrahim Rustam-ek.

Fundazioko presidentea pertsona garrantzitsua da bere herrian, jendeak errespetatu egiten du. Hogei urte egin ditu zamaketari lanetan, eta munduko eskalatzailerik ezagunenekin egin du lan. Daukan indarra azpimarratuta, Albertok eman digu bere berri: “Dagoeneko zaharregia da lehen egiten zituen astakeriak egiteko, baina 1997an, adibidez, *Al Filo*-koak 7.000 metrora igo ziren ala delta batekin, eta bera izan zen ala delta bizkarrean igo zuena. Duela urte batzuk, Pakistango Gobernuak antolatuta, Everestera igotzeko espedizio batean izan zen, eta Nepalgo sherpek lan nola egiten zuten ikusita, berea izan zen Machulun Mendi Eskola sortzearen ideia. Aurten, adibidez, Broad Peak-en egon da, baina espedizioko lagun ingeles bat gaizki jarri, eta ez ziren tontorrera iritsi”.

Abenduaren 7ra arte izango dira Euskal Herrian, eta Baltistan aldera egingo dute gero, lanean jarraitzeko. Bitartean, elkarrizketa amaitu eta Urbiarako bidean utzi ditugu, hango txabola batean bazkaltzeko asmoa zeukaten-eta.

Kirolabur

BERGARA/PILOTA

Gabon Sariko gaztetxoen finalaurdenak gaur, hilak 23, jokatuko dituzte Udal Pilotalekuan (18:00etan). Finalerdiak astelehenean, hilak 27, izango dira (18:00etan), eta finalak abenduaren 30ean (17:00etan). Kadete, gazte eta senior mailako finalak, berriz, abenduaren 29an jokatuko dituzte. Azkenik, sari banaketa abenduaren 30eko finalen ostean egingo dute.

ELGETA/PILOTA

Elgetako Beteranoen Arteko Pilota Txapelketako finala jokatuko dute abenduaren 31n (12:00etan) Udal Pilotalekuan. Joan den egubakoitzean jokatu zituzten finalaurrekoak, eta lehenengo norgehiagokan Morales eta Zenitagoia sailkatu ziren. Bigarren partiduan, berriz, Arantzabalek eta Telleriak egin zuten aurrera. Horrenbestez, bi bikote horien arteko lehia egongo da ikusgai urteko azken egunean, herriko pilotalekuan.

ARRASATE/SASKIBALOIA

Abenduaren 29an eta 30ean kadete mailako selekzioen arteko saskibaloi txapelketa jokatuko dute Arrasaten. Txapelketa horretan izango dira Euskadiko, Nafarroako, Gaztela Leongo eta Aragoiko selekzioak. Eta azpimarratzekoa da Euskadiko selekzioan esku hartuko duela Beñat Barberena gazte arrasatearrak.

ESKORIATZA/FUTBOLA

Eskoriatzako areto futboleko Euskadiko Mailako taldea bigarren postuan dago Andoainen 2-5 irabazi eta gero. Datu aipagarria da, kontuan hartuta eskoriatzarrak aurten igo direla maila horretara. Ohorezko mailako taldeak, berriz, 2-3 galdu zuen ACD Herma taldearen kontra. Emaitzak lagundu ez bazuen ere, partidu txukuna egin zuten.

ZURE BRICOLAJE DENDA

BRICO CENTRO

1.300 m²-ko erakusketa Gabon egun hauetarako briko-opariz beterik

Zulagailua
24 V-ko bateria
• Zulagailu kolpatzailea
1.500 MAH-ko bateria
• Barautsetxe automatikoa
59,95 €

Mahaia + 4 aulki
135 €

• Etxerako artikuluak
• Elektrizitatea
• Lorategirako artikuluak
• Iluminazioa

• Dekorazioa
• Tarimak
• Aulkiak eta mahaiak
• Margoak

• Neurrira eginiko aroztegia
• Bainu altzariak
• Kit-ean altzariak

• Brikolaje artikuluak
• Erremintak

Aramaiorako bidean
Uribarri auzoa
(Markulete industrialdea)
ARRASATE
Tel. 943 712 069
ORDUTEGIA: 10 – 13.30 eta 16 – 20
ZAPATU ARRATSALDEETAN IREKITA

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez

EUSKAL OKELA

Eusko Labela duen bakarra

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO

EUSKO LABEL
KALITATEA

Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.

Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
BAIMENDUTAKO HARATEGIA
EUSKO LABEL
KALITATEA

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA
ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

IBAI-ARTE
ARRASATEKO ZERBITZU
ETA MERKATARIEN ELKARTEA

Aldedi
Alonso Anaiak
Altuna
Anboto
Aranzabal
Arrasate Zoo
Arregi
Bea
Bed's
Beinke
Belem
Ceciaga
Egizabal
Ehune
Elkoro Expert
Eya
Eya
Elorza
Eroski Bidaiak
Etxe Lan
Etxe Mobiliario
Euskadiko Kutxa
Feli
Flash
Foto Imagen
Garagorri
Gili-Gili
Haurtxoa
Hemen
Hire
Ikatz
Itzala
Izozkitegi
J. Uriarte-Tamayo
J.G.
Juanma
Kajoi
Kilikolo
Klas
Koro Zabaleta
Kutxa
La Caixa
Landaluze
Lasagabaster
Lilura
Lorategi
Lore
Los Vaqueros
Luko
Mabel
Marga
Markiegi
Maza
Mayte
Milar Elkoro
Monte
Muruamendiaraz
Oihana
Onandia
Otamendi
Parlance
Phildar
Portaloiko Kioskoa
Portaloi Optika
Publidenak
Sikol
Sugar
Tokion
Tomas
Troko
Txuntxurunberde
Udalaitz
Ume
Uriarte Sport
Urrats
Zabaleta
Zarraoa
Zubia
Zubiaga
Zur-Lur

ibai-arte

Aro
berria,
erakusketa
berria.

FAGOR

jakina
BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Zorionak!

Amillaga 10
BERGARA
943 76 03 30

Goienka 2a

Eguena / 2004ko abenduaren 23a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 23tik urtarrilaren 14ra

GABoNETAKO IRUDIAK KALEAK GIRoTZEKO

Ibarreko herri guztietan daude apaingarriak

Bihar, Gabon eguna, kalez kale eta etxez etxe jardungo dute kantuan askok, ibarreko hainbat herritan. Batzuetan zabalduago dago Gabon kantuan kalera ateratzeko ohitura; ia denetan, ordea, Gabon apaingarriz kaleak janztekoa. Kaleak, dendak, tabernak, eskolak…, modu batera edo bestera Gabonetako apaingarriz ikusiko ditugu sasoi honetan. Argiak ere herri gehienetan jartzen dituzte kalean; baita arbolak, Gabon kantak, jaiotzak… Erakusleiho lehiaketa ere antolatu dute Arrasaten, Bergaran (goiko argazkian, saridunak) eta Aretxabaletan. Gabonetan, aurten, Debagoieneko herrietan kaleak zela apaindu dituzten kontatuko dizugu jarraian. /15

ARGAZKIAK: GOIENKARIA

Elurretako betaurrekoen graduazioan espezialistak gara.

INSTITUTO OPTICO

ARRASATE:
Erdiko kaleko 22.
Tel.: 943 79 71 68

BERGARA:
Bidekurutzeta 10.
Tel.: 943 76 97 03

bioACUSTICA
ESTUDIOS AUDITIVOS

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Jaso zure herriko berriak...

http://www.goiena.net/

Antzuola Aramaio Aretxabaleta Arrasate Elgeta Eskoriatza Gatzaga Oñati Debagoiena

albisteak **e-postaz** *doan!*

azkar, erraz eta doan

GABONAK/ KALEKO DEKORAZIOA

Gabonek kaleak itxuraldatu dituzte

OHI BAINO ARGIZTAPEN HANDIAGOA, ERAKUSLEIHO BEREZIAK ETA ERA GUZTIETAKO ARBOLAK NAGUSI EGUN HAUETAN

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Kaleak askotariko apaingarriz betetzen dira Gabonetan. Hala, kaleetako argiek, jaiotzek eta erakusleihoek zein garaitan gauden adierazten dute. Txikienei atentzioa ematen die dekorazio modu horrek; baina heldu askok sentsazio berezia sortzen diela aitortu dute.

Urtero bezala, garai hauetan Gabon giroa nagusi da ibarreko herrietan. Olentzero, polboroiek eta askotariko ikurrek Gabonak gainean ditugula adierazten dute; baina baita kaleetan ikus daitezkeen askotariko apaingarriek ere. Pertsona batzuen iritziz, herria girotzeko ezinbestekoak dira apaingarri horiek. Beste batzuen iritziz, aldiz, dirua xahutzeko beste modu bat da.

Argiak, esaterako. Herri gehienetan jarri dituzte eta kolore askotakoak izaten dira; Gabonekin lotutako irudiak osatzen dituzte normalean. Baina jende askoren iritziz, larregi dekoratzen da. Oñatiko lagun batek aditzera eman duenez, bere ustez aurten "Herriko plazan argi larregi jarri dituzte, eta oso zakar geratzen da dekorazioa".

OIHANA ELORTZA

Jaiotza biziak gero eta leku gehiagotan antolatzen dira. Irudian, Elkar Hezi ikastetxearena, Oñatin.

DEKORAZIO AURREKONTUAK

Bergarako Udalak, esaterako, diru asko gastatu izan du aurreko urteetan Gabonetako dekorazioan. Iaz, esaterako, 19.200 euroko aurrekontua izan zuen. Aurten, baina, 5.000 euro gastatu dituzte. Maider Osa Kultura teknikariak aditzera eman duenez, diru gutxiago gastatzeko arrazoiak bi dira: batetik, aurreko urteetan kale gutxi batzuetan bakarrik jartzen zituzten argiak, ez baitziren toki guztietara heltzen. "Herritar asko kexatu ziren, ea eurak bigarren mailako herritarrak ziren galdezka", gaineratu du.

Bigarren arrazoia ere azaldu du Maiderrek: "Herritar askoren iritziz, gehiegizko diru kopurua gastatzen zen Gabonetako argiztapenean. Diru gutxiago inbertitu eta dirua beste zerbaitetarako erabiltzea gura zuten. Hala, toki zehatz batzuetan bakarrik jarri ditugu argiak; azoka, San Martin plaza eta San Antonioko biribilgunean, kasu", eman du aditzera.

Bestalde, Aramaio eta Gatzagako udalek ahalik eta gutxien gastatuko dute aurtengo Gabonetan. Hala, herri arabarrean herriko arbola bat apaindu eta udaletxea argiztatu dute bakarrik. Gatzagan, berriz, Markole plazan jarri dute zuhaitza. Jaiotza ere ikus daiteke herriko plazan. Hain zuzen ere, Gatzagako guraso elkartea arduratu zen hura jartzeaz iragan zapatuan.

LEHENGO ETA ORAINGO OHITURAK

Baina urteak igaro ahala, ezin ukatu aldatu egin direla dekoratzeko ohiturak. Izan ere, orain berrogei urte, esaterako, ez zegoen kaleak apaingarriez hornitzeko ohitura handirik. Herri askotan, elizetan aurki zitezkeen jaiotzak eta ez zen beste ezer egoten herria Gabon giroan sartzeko.

Bestalde, geroz eta leiho eta balkoi gehiago dekoratzen dituzte ibarreko biztanleek. Batzuek argiak jartzen dituzte; beste batzuek, Olentzero edo Bizar Zuriren irudiekin apaintzen dituzte euren etxe kanpoaldeak. Beste kultura batzuetatik hartutako ohiturak, nolanahi ere.

ZUHAITZAK JASOTZEKO KANPAINA

Gabonen ostean, herritarrek etxeak apaintzeko erabili dituzten zuhaitzak batuko ditu Eskoriatzako Udalak. Mantentze eta Ingurugiro arloak bultzatuta, natura zaintzeko urratsa egin gura du Udalak. Bizirik dauden arbolak bakarrik jasoko dituzte; 11:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 18:00etara atera beharko dira arbolak udaletxe aurrera.

Landatzeko balio duten zuhaitzak horretarako prestatutako lurretara eraman eta han sartuko dituzte. Gainerakoak birziklatze instalazioetara eramango dituzte.

JAIOTZAK

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Gabonetan jaiotzak kaleetan

Jaiotza da Gabonetako ezaugarri nagusia. Oñatiko Olakua auzoan irudiek ahateak dituzte inguruan, jaiotza urmael batean jartzeko ohitura du-eta aspalditik San Andres kooperatibak. Arrasaten Belenzaleen Elkartea arduratzen da jaiotzaz. Aurten, aurrekontu faltagatik, Jesusen jaiotza bakarrik irudikatu du Garibaikoak. Epifania egunean, urtarrilak 5, Erregeen adorazioa irudikatuko dute.

ERAKUSLEIHOAK

Hartzekin egindako bi erakusleiho garaile Gabonetako lehiaketan

Arrasaten hartzak irten dira garaile lehiaketan. Izan ere, lehenengo eta hirugarren postuak eskuratu dituzte Ehune eta Mertxe dendek; lehenengoak Italiatik ekarritako elektrizitate bidez mugitzen diren hartzak jarri ditu. Bigarreneko hartzak, berriz, estatikoak dira.

Bestalde, Eskoriatzan aurten ez antolatzea erabaki dute. Urtetik urtera parte-hartzaile gutxiago animatu dira komertzioak apaintzera.

GABON-KANTAK

Jende guztiak entzuteko moduan, Gabon-kantak kaleetan

Zenbait herritan musika jartzen dute kalean. Bergaran, esate baterako, udaletxeko megafoniatik euskarazko Gabon-kantak jartzen dituzte batez ere. Goiz eta arratsaldez jarriko dute musika urtarrilaren 6ra arte.

Arrasaten, iaz kritika batzuk jaso zituzten musikaren arduradunek. Antza, gaztelaniazko kantak jartzen zituzten gehienbat. Horregatik, aurten, euskara, gaztelania, ingeles eta latinezko abestiak jartzen dabiltza.

ZUHAITZAK

Ohiko pinuak alde batera utzi eta zuhaitz alternatiboak Elgetan

Zuhaitzak apaintzeko ohitura oso hedatuta dago. Ohiko joeretatik kanpo, Elgetan proposamen interesgarria egin dute aurten. Birziklatutako gaiekin zuhaitzak egitea da helburua, alanbrez egindakoak, esaterako. Eta arrakasta izan du deiak; izan ere, hogei zuhaitz aurkeztu dituzte lehiaketa original horretara. Gaur emango dute aditzera irabazleen izenak. Zuhaitzak taberna eta dendetan daude ikusgai.

GOIENKARIA
Eguena / 2004ko abenduaren 23a

Abe. 23-Urt. 14

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

ANTZERKIA

ARETXABALETA

► **Pirritx eta Porrotx** pailazoek *Patata, patata!* ikuskizuna egingo dute urtarrilaren 8an, zapatua, kirol etxean, 17:00etan. 5 euro da, 4 aldez aurretik erosiz gero.

ARRASATE

► **Giriguay Zirko Ttipiak** umeendako emanaldia egingo du abenduaren 26an, domeka, Amaia antzokian, 17:00etan.

BERGARA

► ***Egizu lo, Tartalo!*** umeendako antzezlana izango da urtarrilaren 4an, martitzena, Novedades aretoan, 18:00etan. 5 euro da helduendako, eta 3, berriz, umeendako.

OÑATI

► **Umeendako jaialdia** girotuko dute Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek, Elvik eta Txan magoak abenduaren 26an, domeka, Zubikoan, 17:30ean. 3 euro da.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Umeendako jolasparkea** zabalik egongo da astelehenean, abenduak 27, pilotalekuan, 10:30-13:00 eta 16:30-19:00 ordutegian.

► **Aizkorrira irteera** egingo dute Arrola elkartekoek abenduaren 31n, eta Arrolara ibilaldia urtarrilaren 1ean. Bi egunotan, Herriko plazan batuko dira, 08:00etan.

ARAMAIO

► **Umeendako eta gazteendako tailerrak** izango dira kultura etxean, 11:00etan. Hilaren 27an, umeendako lantegia izango da; 27an eta 28an, gazteendako malabarismo tailerra.

ARETXABALETA

► **Bakarkako aitortzak** izango dira bihar, egubakoitza, parrokian, 12:00etan.

► **Kirol etxeak** 08:30-13:30 zabalduko du bihar, egubakoitza; etzi, zapatua, itxita egongo da; eta hilaren 31n goizez bakarrik zabalduko dute.

► **Gabonetako otzara** zozketatuko du Batasunak. Txartelak herriko tabernatan daude salgai euro baten, urtarrilaren 7ra bitartean.

ARRASATE

► **Txikilandia jolasparkea** egongo da urtarrilaren 2tik 5era bitartean, Musakolako kiroldegian, 11:00-14:00 eta 16:00-20:00.

► **Errege kabalgatako entseguak** abenduaren 27an eta urtarrilaren 3an izango dira, San Viatorren, 19:30ean. Abesbatzako kideendako, abenduaren 28, 29 eta 30ean eta urtarrilaren 3an eta 4an izango dira. Parte hartu gura duten guztiak joan daitezke.

► **Musakolako kiroldegiak** honako ordutegia izango du: abenduaren 24 eta 31n, 07:30-13:30; abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, itxita; eta urtarrilaren 5ean, 07:30-19:30.

► **Gazte bulegoa** itxita dago hilaren 26ra bitartean, eta baita abenduaren 29tik urtarrilaren 2ra bitartean ere. Abenduaren 27an eta 28an, 10:00-14:00 ordutegia izango du; urtarrilaren 3tik 5era, 11:00-13:00 eta 17:00-20:00, eta 6tik 9ra bitartean, itxita.

► KONTZERTUAK

ARRASATEKO GAITARIEN URTEURRENA AMAITZEKO EMANALDIA

Bi ospakizunek aitzakia polita ematen digute ezohiko kontzertu batez gozatzeko: izan ere, Arrasateko Gaitariek 25. urteurrena ospatu dute aurten, eta ekitaldi bereziak egin dituzte urte osoan. Horietatik azkena gaur, eguena, izango da. Bestetik, jakina, Gabonen atarian gaude. Emanaldia Eltziegoko Gaitariak & Friends taldeak egingo du gaur, eguena. Oso talde berezia da, izan ere, gaitarekin eta beste hainbat musika tresnarekin –tronboia, bonbardinoa, tuba eta perkusioa– antolatzen dituzte emanaldiak. Iazko Gabonetan ere izan ziren Mondragoen. Aurten, Euskal Herriko zein kanpoko Gabon kantak joko dituzte: herrikoiak dira gehienak, baina baita modernoagoak ere.

Non: Arrasaten, Portaloian. **Noiz:** gaur, abenduak 23, eguena. **Ordua:** 19:30ean. **Antolatzailea:** Arrasateko Gaitariak.

BERGARA

► **Kiroldegia** itxita egongo da abenduaren 24, 25, 27, 28, 29, 30 eta 31n, eta urtarrilaren 1ean. Igerilekua 08:45-14:00 ordutegian egongo da zabalik abenduaren 24 eta 31n, eta abenduaren 25 eta urtarrilaren 1 eta 6an itxita egongo da.

► **Gazte informazio bulegoa** 09:30-13:30 ordutegian zabalduko dute abenduaren 23, 24, 30, 31 eta urtarrilaren 7 eta 8an.

► **Euskadi-Honduras partidua** ikusteko sarrerak salgai daude Deportivo tabernan 20, 15 eta 10 eurotan. Partidua hilaren 29an izango da Anoetan.

► **Gabonetako jolasparkea** izango dute umeek abenduaren 27tik 30era bitartean, astelehenetik eguenera, Labegaraietako kiroldegian. 3 euro da sarrera.

► **Baqueira Beretera irteera** deitu du Pol-Pol taldeak urtarrilaren 14tik 16ra bitartean. Izena emateko, deitu 943 76 48 51era.

► **1956an jaiotakoek** kinto batzarra egingo dute urtarrilaren 29an, zapatua, Zabala jatetxean. 19:30ean batuko dira frontoian; talde argazkia aterako dute eta 21:00etan joango dira afaltzera. Izena emateko, deitu Zabala jatetxera (943 76 20 07). Urtarrilaren 23a duzue mugaeguna.

DEBAGOIENA

► ***Kilometroak 2005 plazara!*** Eskoriatzan egin zuten aurkezpen jaiaren DVDa salgai dago Kilometroen materiala saltzeko zabaldu dituzten dendetan.

► **Baserriko plastikoak** bilduko dituzte hilaren 28an, martitzena, ibarreko herri guztietako ohiko lekuetan. Aldaketarik egin gura izanez gero, deitu 943 76 25 47 telefonora.

► **Saharar errefuxiatuendako** atuna, azukrea eta konpresak biltzen dihardu Euskal Karabanak. Supermerkatuetan egiten dute bilketa. Argibide gehiagorako, deitu 619 02 96 48 telefonora.

ELGETA

► **Eguberri egunean, Meza nagusia** izango da parrokian, 12:00etan. Parrokiako abesbatza nagusiak ume taldearekin batera abestuko du.

ESKORIATZA

► **Gabonetako jolasparkeak** izango dira kiroldegian eta igerilekuetan abenduaren 28tik 30era bitartean. Hiru egunetako txartela da 6 euro; egun bakarrekoa, 3.

► **Hainbat eski irteera** antolatu ditu kirol elkarteko mendi sailak, honakoak: urtarrilak 15-16, Luz Ardidenera; otsailak 12-13 eta martxoak 5-6, zehaztu gabeko eski estazioetara; eta martxoak 24-28, Andorrako Gran Valira estaziora. Izena emateko edo argibideetarako, jo Namaste dendara edo deitu 943 71 43 27 zenbakira.

OÑATI

► **Santo Tomas azoka** egingo dute Txantxiku ikastolako DBHkoek gaur, eguena, azoka plazan, 11:00etan.

► ***Vietnam: izenaren ostean dagoen izana, komunismoa eta globalizazioa*** delako hitzaldia egingo du Beatriz Rubio irakasleak. Gaur, eguena, izango da, Elkar Heziren Santa Marinako egoitzan, 10:30ean.

► **24 orduko areto-futbol txapelketa** jokatuko dute abenduaren 27an, astelehena, Zubikoan.

► ***2004 –ixa 2005– Lasterketa Herrikoia*** deitu du San Silbestre taldeak abenduaren 31rako, egubakoitza. Herriko plazan hasiko da 16:30ean.

► **Gabonetako jolasparkea** (baita uretakoa ere) izango da kiroldegian urtarrilaren 3an eta 4an. Jolasparkea 11:00-14:00 eta 16:30-20:00 izango da zabalik, eta uretakoa 10:00-12:00 eta 15:00-17:00.

► **Bertso saioa** egingo dute Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Sustrai Colina, Amets Arzallus eta Joxe Agirrek urtarrilaren 5ean, eguaztena, Zubikoa kiroldegian. 22:30ean hasiko da.

► ***Sagatz*, Ganbara abesbatzaren diskoa,** honako lekuetan dago salgai, 12 eurotan: Argi, Ibarrondo, Izarraitz, Antton, Luisena eta kultura etxea.

► **Heziketa afektibo sexuala** delako egitasmoa aurkeztuko die gurasoei Rafael Godoy adituak. Elkar Hezi ikastetxeak antolatzen du urtarrilaren 12rako, eguaztena, Santa Marinan, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Arte Grafikoa eta Originala** delako erakusketa izango da Iturriotz kaleko 35eko lokalean, honako ordutegian: astelehenetik zapatura bitartean, 11:30-13:30 eta 17:00-20:30, urtarrilaren 15 arte. Puntapuntako hainbat euskal artistaren lanak biltzen ditu.

► **Ion Pousa** arrasatearrak margolan erakusketa du zabalik Harresi aretoan urtarrilaren 3ra bitartean. Honako orduetan dago zabalik: astelehenetik zapatura, 18:30-20:00, eta domeka eta jai egunetan, horrez gain, baita 12:00-14:00 ordutegian ere.

► **Juan Luis Baroja Collet** grabatzaile eta eskultoreak erakusketa du Arregi markoztatze dendan, urtarrilaren 15era bitartean.

BERGARA

► **Bergarako margolariek erakusketa** zabalduko dute gaur, eguena, kultura etxean, urtarrilaren 1era bitartean. Astegunetan, 18:00-21:00 ordutegian egongo da zabalik, eta zapatu eta jai egunetan, horrez gain, 12:00-14:00 ordutegian ere.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa** deitu du Udalak. 50 x 70 cm-ko kartel bertikalekin parte har daiteke. Derrigorreko testua da *2005 Haratuzteak Arrasate*. Lanak entregatu behar dira Udal Kultura sailera urtarrilaren 17a baino lehen. 360 euroko saria banatuko dute.

BERGARA

► **XV. Kirol materialak euskaraz sortzeko beka** deialdia egin dute. Aurten, kirol egokituaren eta gimnasia txirrindularitzaren gaineko fitxak egiteko bekak emango dituzte. Eskabideak Bergarako Udal Kirol Zerbitzuan egin behar dira, urtarrilaren 30a baino lehen. Argibideak: *www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz*.

► **E.H. Kola Kopa Dardo Txapelketa** deitu du gaztetxeak abenduaren 29 eta 30erako, 21:00etan. Banaka izango da, cricket erara. Izenematea 5 euro da, eta 600, 300 eta 200 euroko sariak banatuko dituzte.

► **XIII. Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa** deitu du Jardun euskara elkarteak. Lanak Jardunen bulegora bidali behar dira, Errotalde Jauregira, edo *kulturajardun@topagunea.com* helbide elektronikora, urtarrilaren 7a baino lehen. Sari nagusia da 450 euro; 26 urtetik beherako onenaren saria, 100 euro.

DEBAGOIENA

► **41. Artista Berrien Lehiaketa** deitu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak. 35 urtetik beherako gipuzkoarrek parte har dezakete, ikusarteetako edozein motatako lanekin. Mugaeguna da urtarrilaren 28a. 7.500 eta 3.000 euroko sari bana emango dute. Argibideak: 943 48 27 52.

OÑATI

► **Gazte Asanbladaren logotipoa** aukeratzeko lehiaketa deitu dute. Gaia librea da, eta tamaina, Din A-4. Lanak gaztelekuan utzi behar dira urtarrilaren 7a baino lehen, eta, kartazal baten, izen-deiturak eta telefonoa. Aukeratutako logoa Gazte Asanbladaren kamisetetan ipiniko dute.

► ERAKUSKETA

BUZTINEZKO ARTELANAK, IÑAKI JAUREGIALTZOREN ESKUZ EGINAK

Teilak, buztinak eta buztinezko bihotzak erakusketa zabaldu berri du jaioterrian Iñaki Jauregialtzo zeramikari oñatiarrak. Euskal folklorea, Oñatiko bereizgarriak… gai hartuta, *Jaltzo*-k egin dituen ehun lan berrienak dira hauek.

Non: Oñatiko kultura etxean. **Noiz:** Egunero, urtarrilaren 10era bitartean (lau jaiegunetan itxita). **Ordua:** 18:30-20:30.



► EMANALDIAK

GABONETAKO EGITARAU BEREZIA JAMEN

Bergarako Jam aretoak musika, antzerkia, umeendako emanaldiak… antolatu ditu abenduaren 24tik urtarrilaren 5era bitarterako, egunero. Sarrera doan edo prezio merkean izango da. Adibidez, rock, acid jazz, metal… jaiak, urte bukaerako jaialdia, zinekluba eta beste batzuk antolatu dituzte. Tartean, umeendako bi antzezlan izango dira. Horietatik bat Markeliñe taldearen *Kartoibiraka* ikuskizuna izango da. Horren sarrera 5 euro da.

Non: Jam aretoan. **Noiz:** *Kartoibiraka*, urtarrilaren 2an. **Ordua:** 18:00.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

► **Olentzerorekin kantu kalejira** egingo dute herriko ikasleek bihar, egubakoitza, goizean. Arratsaldean, euskal presoen aldeko kanta kalejirak izango dira.

ARAMAIO

► **Olentzero** herrira jaitsiko da menditik, iluntzean. Gero, herriko plazan ospakizuna egingo du umeekin.

ARETXABALETA

► **Gabon kanta emanaldia** egingo dute herriko hainbat ume eta gurasok bihar, egubakoitza. Herriko plazan batuko dira 10:30ean.

► **Olentzerok** kalejira egingo du bihar, egubakoitza, kirol etxetik plazaraino, 18:30ean, txistulariekin batera. Jaiotza bizia ere egongo da.

► **Bizar Zurik kalejira** egingo du abenduaren 31n, egubakoitza. Kirol etxetik abiatuko da 18:30ean.

► **Errege Magoek kabalgata** egingo dute urtarrilaren 5ean, eguaztena, kirol etxetik hasita, 18:30ean. Ume abesbatza batek parte hartuko du.

ARRASATE

► **Jaiotza bizia** ipiniko dute Corazon de Encina kultura elkartekoek bihar, egubakoitza, euren egoitzan.

► **Erregeen kabalgata** izango da urtarrilaren 5ean. 17:30ean, Iturbide egoitzara joango dira; 19:00etan, egoitzatik Herriko plazaraino bidea egingo dute; eta 19:45ean, jaiotza ikusteko aukera izango da Herriko plazan.

BERGARA

► **Olentzerok** umeen gutunak jasoko ditu bihar, egubakoitza, San Martin plazan, 18:30ean.

► **Errege kabalgata eta Bizarzuriren kalejira** izango dira urtarrilaren 5ean, eguaztena.

ELGETA

► **Gabonetako herri jaialdia** izango da abenduaren 30ean, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian, 22:00etan. Elgetako abesbatzak, bi ume taldek eta herriko hainbat elkarte eta koadrilak kantu eta karaoke egingo dituzte.

ESKORIATZA

► **Olentzero** herrira etorriko da bihar, egubakoitza. Apotzagara 17:30ean iritsiko da; gero, kalez kale ibiliko da. Herria girotzeko, 12:00etan herriko umeek kanta kalejira egingo dute; 13:00etan, Olentzeroren laguntzaileek gutunak batuko dituzte Herriko plazan.

► **Erregeen desfilea** egongo da urtarrilaren 5ean, eguaztena, 18:30ean. Arratsaldean, herriko dendariek *Eskoriatzan erosi eta 1.000 euro irabazi* promozioko zozketa egingo dute.

LEINTZ GATZAGA

► **Gabon kantak** abestuko dituzte bihar, egubakoitza, gazteek eta helduek baserriz baserri, trikitilariekin eta Olentzerorekin, 09:30ean hasita.

OÑATI

► **Gabon kanta kalejira** egingo dute Txantxiku ikastolakoek bihar, egubakoitza, 12:00etan. Plazan bukatuko da kalejira 13:30ean.

► **Gabon kanta kalejira** egingo dute Errekalde Herri Eskolakoek bihar, egubakoitza, goizean. Herriko plazan bukatuko da. Gero, jaialdia egingo dute Institutuko ikasleekin batera.

► **Olentzerok** kalejira egingo du bihar, egubakoitza. Otadui zuhaiztitik irtengo da 18:00etan.

► **Errege kabalgata** izango da urtarrilaren 5ean. Parrokia ondotik hasiko da, 18:30ean.

KORTA-ZAR
Txokolategia

Urtarrilaren 5ean
Ogitartekoak eta pintxoak goizaldera arte!

Barrenkalea 16 BERGARA
Tel.: 943 76 20 62

Ondo ibili Gabonetan!

• Antzinako egurrezko altzarien zahar berritzea
• Habeen saneamendua

LA VIRGEN DE MURILLO
Bidebarrieta 23, 6.
EIBAR
943 20 16 41

GOIENKARIA
Eguena / 2004ko abenduaren 23a

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Gabonetako kontzertua** eskainiko dute abesbatzak eta Leizarra musika eskolak domekan, abenduak 26, parrokian, 19:00etan.

ARRASATE

► **Gabonetako emanaldi berezia** egingo du Arrasate Musikaleko Bandak abenduaren 31n, egubakoitza, Amaia antzokian, 13:00etan.

BERGARA

► **Hainbat kontzertu** izango dira gaztetxean: bihar, egubakoitza, DJ jaia. Elortza, Belas, Samu eta Baltza anaiekin, 01:00etan; abenduaren 31n, Bergarako hainbat talderen kontzertu berezia, goizaldean.

ESKORIATZA

► **Gabonetako kontzertua** egingo du Musika Eskolako Bandak gaur, eguena, San Pedro elizan, 20:00etan.

OÑATI

► **Garik** *0-tik* bere diskoa aurkezteko kontzertua eskainiko du abenduaren 30ean, eguena, gaztelekuan, 22:30ean. Sarrera 8 euro da, 6 euro aldez aurretik erosiz gero, kultura etxean.

► **Urte amaierako musika jaialdia** egongo da abenduaren 31ko gauerdian gaztelekuan. Dantzarako musika entzun eta ipintzeko aukera izango da.

► **Gabonetako kontzertua** egingo du Musika Bandak urtarrilaren 6an, Santa Ana antzokian, 12:30ean.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Hitanoa ikasteko jardunaldiak** antolatu ditu Loramendi elkarteak urtarril erdialderako. Izenematea egunotan egin behar duzue.

► **Gestalt tailer esperientziala** antolatu du Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak urtarrilaren 14tik aurrera. Baita meditazio ikastaro bat ere, urtarrilaren 10etik aurrera. Izen emateko, deitu 616 96 57 95era.

OÑATI

► **Capoeira ikastaroa** deitu du Oñatiko Gazte Asanbladak. Urtarrilean hasiko da, astean bi saio, 19:00-20:45. Izenemate epea zabalik dago abendu osoan Gazte Informazio Bulegoan.

IKUSKIZUNAK

OÑATI

► **Musika Ikusgarria zikloaren barne,** honako bideo emanaldiak egongo dira gaztelekuan, 22:00etan: Sepultura taldearen *Chaos DVD* gaur, eguena, eta AC/DC taldearen kontzertu baten bideoa hilaren 28an, martitzena.

Zinema

ANTZUOLA

■ **FRONTOI TXIKIA**

Film emanaldiak
Hilak 23 eta 30: 22.00.

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Umeendako zinema
Zapatua eta domeka: 17:30.

Ying xiong
Domeka: 19:30.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Los increíbles
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 19:30.

La luna de Avellaneda
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Amelie
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEMA**

El lobo
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Shin Chan (euskaraz)
Astelehena eta martitzena: 17:00.

Romasanta
Eguena: 20:00.
Astelehena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Ocean's twelve
17:30, 20:00, 22:30.
Hilak 24: 17:30.

Polar express
17:30.

La búsqueda
20:00, 22:30.
Hilak 24: ez dago emanaldirik.

Cinco chicos y esto
17:30.

Bridget Jones: sobreviviré
20:00, 22:30.
Hilak 24: ez dago emanaldirik.

El fantasma de la ópera
17:00, 19:45, 22:30.
Hilak 24: 17:00.

Los increíbles
17:00, 19:45.
Hilak 24: 17:00.

La historia del camello que llora
22:30.
Hilak 24: ez dago emanaldirik.

Sky captain y el mundo de mañana
17:00, 19:45, 22:30.
Hilak 24: 17:00.

Lemony Snicket
17:00, 19:45, 22:30.
Hilak 24: 17:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Lemony Snicket
17:30, 20:15, 22:45.
Hilak 24: 17:30.

Ocean's twelve
17:30, 20:15, 22:45.
Hilak 24: 17:15.

Los increíbles
17:15, 20:00, 22:30.
Hilak 25: 17:15.

Melinda y Melinda
17:30, 20:15, 22:45.
Hilak 24: 17:30.

La búsqueda
17:30, 20:15, 22:45.
Hilak 24: 17:30.

Polar express
17:20.

Bridget Jones: sobreviviré
19:50, 22:35.
Hilak 24: ez dago emanaldirik.

El lobo
17:15, 20:00, 22:30.
Hilak 24: 17:15.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
17:15.
Hilak 24: ez dago emanaldirik.

La luna de Avellaneda
19:30, 22:30.
Hilak 24: 17:15.

Mar adentro
17:15, 20:00, 22:30.
Hilak 24: 17:15.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Los chicos del coro
17:30, 20:00, 22:30.
Hilak 24: 17:30.

El niño que quería ser un oso
17:00, 18:45.
Hilak 24: 17:00.

Beautiful boxer
20:15, 22:30.
Hilak 24: ez dago emanaldirik.

Los superbabies
17:00.

Supertramps
18:45.

Un toque de canela
20:15, 22:30.
Hilak 24: ez dago emanaldirik.

Whisky
17:30, 20:00, 22:30.
Hilak 24: 17:30.

Padre e hijos
17:00, 19:45, 22:30.
Hilak 24: 17:00.

El puente de San Luis Rey
17:30, 19:45, 22:30.
Hilak 24: 17:00.

El maquinista
17:00, 19:45, 22:30.

■ **ABACO-LAKUA ZINEMAK**

Sky captain y el mundo de mañana
16:00, 18:15, 20:30, 01:00.

El puente de San Luis Rey
16:30, 19:25, 00:45.

Taxi: derrape total
16:00, 18:15, 20:30, 01:00.

Ocean's twelve
16:30, 19:20, 00:45.

El maquinista
20:30, 01:00.

El fantasma de la ópera
16:20, 19:10, 00:40.

La búsqueda
16:25, 19:10, 00:40.

Los increíbles
15:50, 18:10, 20:25, 01:00.

Beautiful boxer
20:00, 01:00.

Los superbabies
16:00, 18:00.

Polar express
16:00, 18:15.

Arratsaldeko lehen orduko saioak, eguen, egubakoitz, domeka, astelehen eta martitzenean.
Gauerdiko saioak, bakarrik zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Sky captain y el mundo de mañana
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Lemony Snicket
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Taxi: derrape total
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

El niño que quería ser un oso
12:15, 16:20, 18:20.

Supertramps
12:15, 16:30, 18:30.

Ocean's twelve
12:15, 16:30, 19:00, 21:45, 00:15.

El fantasma de la ópera
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:35.

La búsqueda
12:15, 16:25, 19:10, 21:40, 00:25.

Los increíbles
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Bridget Jones: sobreviviré
18:15, 20:25, 22:35, 00:55.

Una Navidad de locos
12:15, 16:10, 18:10.

El lobo
20:10, 22:25, 00:45.

Princesa por sorpresa 2
12:15, 16:05, 18:15.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
20:35, 22:35, 00:35.

Polar express
12:15, 16:25, 18:25, 20:25.

Collateral
22:25, 00:45.

Beautiful boxer
20:00, 22:15, 00:30.

Dos hermanos
12:15, 16:45.

El mensajero del miedo
19:15, 21:30, 00:15.

La semilla de Chucky
20:30, 22:30, 00:30.

Cinco chicos y esto
12:15, 16:20.

Hilak 24: arratsaldeko lehen bi saioak.
Hilak 25: arratsaldeko bigarren saiotik aurrera.
Gauerdiko saioak, abenduaren 25ean, zapatua.
Eguerdiko saioak, abenduaren 26an, domeka.
Astelehena, ikuslearen eguna.

■ **ÁBACO BOULEVARD**

Sky captain y el mundo de mañana
12:20, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Lemony Snicket
12:10, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.

Taxi: derrape total
12:20, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Ocean's twelve
12:00, 17:10, 20:00, 22:30, 01:05.

Cinco chicos y esto
12:10, 17:00.

Princesa por sorpresa 2
12:10, 15:50, 18:15.

El fantasma de la ópera
19:30, 22:15, 01:05.

La semilla de Chucky
12:00, 16:25, 18:25, 20:35, 22:35, 00:45.

La búsqueda
12:00, 16:25, 19:10, 22:00, 00:45.

Polar express
12:15, 15:50, 18:00.

El asombroso mundo de Borjamari y Pocholo
20:40, 22:40, 00:45.

Los chicos del coro
18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Los increíbles
12:00, 15:40, 16:00, 18:00, 20:20, 22:40, 01:05.

Bridget Jones: sobreviviré
12:10, 16:00, 18:10, 20:25, 22:35, 01:00.

El lobo
20:05, 22:30, 01:05.

Hilak 24: arratsaldeko lehen bi emanaldiak.
Hilak 25: arratsaldeko bigarren emanalditik aurrera.
Gauerdiko saioak, abenduaren 25ean, zapatua.

Eguerdiko saioak, abenduaren 26an, domeka.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

Amelie: ●●●● / ***Collateral:*** ●●●

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

OCEAN'S TWELVE

PUNTUAZIOA: ●●

ZUZENDARIA: Steven Soderbergh.
AKTOREAK: George Clooney, Brad Pitt, Catherine Zeta-Jones.

Steven Soderbergh zinema zuzendariak (*Sexo, mentiras y cintas de video, Traffic*) tartekatzen ditu pertsonalagoak eta komertzialagoak diren lanak. Esate baterako, George Clooneyrekin egin dezake *Solaris* (Tarkovskiren filma baten bertsio berri bat) edo *Ocean's Eleven* (Frank Sinatra, Dean Martin eta abarren bertsio berri bat). Argi dago horietatik komertziala dena aipatutako bigarrena dugula, eta horren froga orain, *Ocean's Twelve*, pertsonaia eta ezaugarri berberez filmatutako abentura berri bat daukagu.

Hori dela eta, patroi berberez egindako filma daukagu, baina hori bai, ezaugarri horiei aldaketa txiki batzuk egin behar zaizkie, berritasun sentsazioa sortzeko. Lehengo filma Las Vegasen girotzen bazen, bigarren zati honetan Europako hiri ederretan gertatzen da (Amsterdam, Paris, Erroma), eta lehenengoan zinemako izar oso ezagunak agertzen baziren –George Clooney, Brad Pitt, Julia Roberts, Matt Damon–, bigarren honetan aipatutako guztiak gehi Catherine Zeta-Jones distiratsua edo Bruce Willis —agerraldi txiki batean— ikusteko aukera izango dugu. Bigarren honetan, auto, jantzi, jauregitxo eta museo dotoreak ikusiko ditugu, eta pertsonaia pila bat, zinema eta iragarkien irudiekin zerikusi handia duen muntaia ikusgarriak, musika asko, eta argumentuaren biraketa eta ustekabe ugari izango dira.

Ezaugarri horiek ikusi hondoren, argi-eta garbi dago filma ez dela asper-garria; ez da luzea egiten, nahiz bi ordu iraun, baina, tamalez, ez du interes handirik. Istorioak ez du zehaztasun ezta lotura handirik ere: pertsonaia ugari agertzen eta desagertzen dira, engainatu egiten dute eta engainatu egiten dituzte, atxilotu egiten dituzte eta eurek nahi dutenean kartzelatik ihes egiten dute. Filma zati txiki edo gag luzeen bidez ibiltzen da. Hala, gauza asko gertatzen dira, aldaketa eta nahasketa ugari ikusten ditugu, baina gutxi landutako aldaketak, eta horregatik, ez zaigu askorik inporta kontatzen ari zaizkigun guztia. *Ocean's Twelve* film koloretsua, liraina, baina mugatua da.

Eguberri eta urte berri on, guztioi, eta ea 2005ean film eder asko ikusteko aukera daukagun.

ANTONIO ZABALA

Uztaileran 20a: 010 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak, Maria Angeles

Maria Angeles Zulueta oñatiarrari tokatu zaio *Asteleheneko Goienkaria*-k zozkatutako Mediterraneoan zeharreko bi lagunendako itsas bidaia. Pozik hartu du berria aspalditik *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun den Maria Angelesek. Lagun batekin joango da bidaian.

"Lagun batek eman zidan berria, eta hasieran txantxa zela uste nuen"

Zela jakin zenuen tokatu zitzaizula?

Lankide ohi batek deitu zidan berria emanez, baina hasieran txantxa zela pentsatu nuen. Gero Goienatik deitu zidaten eta ilobak ere ikusi zuen aldizkarian. Pozik hartu nuen berria.

Tokatu zaizu inoiz horrelako saririk?

Ez, *Asteleheneko Goienkaria*-n orain artean ez, eta begiratu ere ez nuen egiten ea nori tokatzen zitzaion. Gainontzean ere bestelako saririk ez dut sekula jaso.

Zeinekin joango zara?

Lagun batekin joango naiz. Gure asmoa apirilean joatea da, baina data adostu beharko dugu.

Egin duzue inoiz itsas bidaiarik?

Urtero bidaia bat egiten dugu, baina nik itsas bidaiarik ez dut sekula egin. Nirekin etorri den laguna, aldiz, iaz izan zen antzerako bidaia batean. Hala ere, bidaia tokatuta, nola ez berriz joan!

Noiztik zara *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun?

Aspalditik jasotzen dut aldizkaria, bai astelehenekoa eta baita egubakoitzekoa ere. Poliki irakurtzen dut, baina gustura. Aurrerantzean gogo eta interes handiagoarekin irakurriko dut, gainera.

Maria Angeles Zulueta, irabazlea, eta Viajes Iberiako Rebeca.

010 zozketa saridunak

Beste sari batzuk ere zozketatu ziren. **Zure izena azpiko zerrendan badago,**

ZORIONAK!

'Ipuin klasikoak'
- Xabi Allaniz Aranburuzabala (Arrasate)
- Txaro Cifuentes San Jose (Eskoriatza)

Eibar-Recreativo de Huelva partidurako sarrerak
- M. C. Bengoa Arando (Aretxabaleta)
- Enkarna Urmeneta (Oñati)
- Felix Idigoras Larrañaga (Bergara)
- Ekaitz Gredilla Girado (Aramaio)
- Tomas Jauregi Iparra (Antzuola)
- Nerea Sarasu Arozena (Elgeta)

Urtarrilaren 10era arte!

Gabonetako oporren ostean, *Asteleheneko Goienkaria* urtarrilaren 10ean itzuliko da harpidedun eta irakurleengana. Eta urte berrian ere zozketa eta sari berriak etorriko dira *Harpidedunen txoko*-ra.

Bien bitartean, Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi. Zorionak eta urte berri on!

Baldintzak

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ESKAINTZA BEREZIA

Harpidetza kuota, 35 euro!

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Erdialdea 80 m². Eguzkitsua.
- Erdialdea 85 m². Berritzeko.
- Martoko 85 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 45m². Berrituta.
- San Pedro 150m². Ondo.
- Zubieta 70 m². Eguzkitsua.

Antzuola:
- Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Garajea aukeran.
- Erdialdea 88 m². Berria.

Elgeta:
- Duplexa 140 m². Berria.

Soraluze:
- Erdialdea 57 m². Berrituta.

BASERRIAK SALGAI
- Elosun, Osintxun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
- Erdialdea 86 m². Etxe berria.
- Masterreka 75 m². Berrituta.
- Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
- Erdialdea 78 m². Berrituta.
- San Anton 67 m². Berrituta.
- Zubieta 70 m². Eguzkitsua.
- Erdialdea 75 m². Ganbara.
- Zubiaurre 55 m². Erdi berriztua.

ANTZUOLA:
- 11 etxebizitza berri.

SORALUZE:
- Errekalde 82 m². Ondo dago.
- Rabal 42 m². Ondo dago.

BASERRIAK
- Angiozar 600 m² eta lursaila.
- Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com*

TXATXILIPURDI

12-16 URTE BITARTEKO MUTILEKIN LAN EGITEKO, MUTILA BEHAR DA. URTARRILETIK AURRERA. 943 77 17 39

OÑATI

XAUEN, JARDUNEAN DAGOEN GAZTE MODA ETA OSAGARRIEN DENDA EMATEN DA ERRENTAN. 658 75 64 65

AM

GRUPO AMUEBLADORA MONDRAGONESAK ESPERIENTZIADUN DEKORATZAILEA BEHAR DU. INTERESATUOK BIDALI CURRICULUMA ARRASATEKO 225 POSTA-KUTXARA.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Bi logela. Berritua, bizitzera sartzeko. Gasa eta berogailua kanalizatuta. 168.000 euro. 666 80 09 32 edo 627 21 87 49.

Aramaio. Etxebizitza salgai Ibarran. Oso eguzkitsua. 63 m². Berrituta. Bizitzen hasteko moduan. Merke. 945 44 53 99.

Arrasate. 142 metro koadro. Erguin auzoan. 635 73 27 74.

Arrasate. Erguin auzoan. 60 m². Sukaldea, egongela, bainugela, hiru logela. Bi terraza. 615 75 04 72.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguinen. Erdi jantzia eta eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainua. 636 21 77 40.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zerrajera kalean. 110 m². Deitu 19:00etatik 21:00etara. 615 70 29 18.

Arrasate. Galizia kalean etxebizitza salgai. 58 metro koadro: bi logela, egongela, komuna eta atondoa. Sotoa ere badauka eta etxea berrituta eta jantzita dago. 665 72 71 65 edo 655 71 86 13.

Arrasate. Uribe auzoan. 80 m². Erabat berriztatua. Garajea, trastelekua eta ganbara ditu. 659 77 18 57.

Benidorm. Etxebizitza saldu edo errentan emango nuke. Itsasora begira. Igerilekua, tenis pista eta parkea ditu. 639 41 84 65.

Bergara. Erdialdean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailua. Oso eguzkitsua. Prezio ona. 647 58 95 86.

Gasteiz. Etxebizitza salgai. 943 76 34 33.

Soraluze. Eraikin berria. Garajearekin eta teilatupearekin. Bi logela, bainua, sukaldea eta egongela. 666 69 27 69.

Soraluze. Etxe berritua salgai. Sukaldea eta bainugela jantzita. Garajea, solairuartea eta txokoa. 615 77 99 20.

102. EROSI

Bergara. Apartamentua edo etxe txiki bat erosiko nuke. Igogailua badu hobeto. 653 71 44 25.

103. ERRENTAN EMAN

Costa Sancti Petri Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote nafar bat etxebizitza errentan hartzeko gertu. Urgentea da. 635 70 31 01.

Arrasate. Erdialdean etxebizitza errentan hartuko nuke, bi logelarekin. 630 47 35 30.

Arrasate. Etxea hartuko nuke errentan. 2005. urte osorako. 615 00 32 31.

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Telefonoa: 615 00 32 31.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko lagunа behar dugu. Telefonoa: 665 70 46 13.

Gasteiz. Gasteiz hiribide inguruan dagoen Gorbeia kalean etxebizitza osatzeko neska behar da. 337 euro. 665 72 20 85.

Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. 615 72 15 17.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Garaje itxia salgai. 670 49 87 40.

Bergara. Garajea saldu edo errentan emango nuke, San Lorentzo kalean. 943 76 58 28.

202. EROSI

Oñati. Garaje bat erosi gura nuke, Olakua edo San Lorentzo inguruan. 652 71 76 81.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje leku bat Kontzezino kalean. Telefonoa: 655 71 81 84.

Arrasate. Usaetxe plazan. 943 08 22 31.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje itxia hartuko nuke errentan Ozaeta edo Zubiaurre inguruan. Telefonoa: 679 62 69 64.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Musakolan, 30 m², kaletik sarrera. Telefonoa: 943 79 66 44.

303. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Bulego moduan erabiltzeko 80 m²-ko lokala, Antigua 10en. 616 27 79 99.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Gazte talde batek lokal bat errentan hartu gura du. 680 61 87 72.

Arrasate. Gazte talde batek lokal bat errentan hartu gura du. 680 61 87 72.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

'Au pair' lan egiteko neska euskaldun bat behar dute Ingalaterran. 656 72 05 25.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskaldunak umeak zein pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Baita gauez ere. Telefonoa: 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko. 943 08 12 80.

Arrasate. Neska gaztea gertu garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko, Arrasaten edo Aretxabaletan. Telefonoa: 646 15 21 20.

Arrasate. Neska gertu dago pertsona nagusiak zaintzeko. Astean, gauez. Eta asteburuan egunez eta gauez. Telefonoa: 666 24 85 95.

Bergara edo Antzuola. Neska arratsaldez edo aste bukaeretan etxeko lanak egiteko, edadetuak zaintzeko edo tabernan lan egiteko gertu. Esperientziaduna. (Elena). Telefonoa: 699 31 91 89 edo 943 76 63 10.

Bergara. Emakumea etxeko lanak egiteko gertu. 685 70 46 97.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko nahiz haurrak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. 610 34 97 88.

Bergara. Emakumezko batek tabernan eta zaharrak zaintzen egingo luke lan. 620 36 38 24.

Bergara. Gizonezko batek egingo luke lan: txofer moduan, garbiketa lanetan, peoi moduan, propaganda banatzen e.a. 620 36 38 24.

Bergara. Neska gazte arduratsua lanerako gertu. Adinekoak zainduko nituzke barneko langile modura. 610 03 23 84.

Debagoiena. Anak etxeko lanak eta garbiketa lanak egingo lituzke. Horretaz gainera, haurrak, gaixoak eta nagusiak zainduko lituzke. 667 80 48 70.

Debagoiena. Elektrizista, iturgin, peoi edo publizitatea banatzen lan egingo nuke. 685 71 03 17.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko nahiz haurrak zaintzeko goizetan, orduka. Marian. 650 10 02 10.

Debagoiena. Emakumea gertu taberna edo jatetxeetan sukalde lanak egiteko. 943 77 13 64.

Debagoiena. Gizon-emakumeak edozein lan egiteko gertu. Presazkoa. Telefonoa: 606 52 39 77.

Debagoiena. Mutil euskalduna edozein lan egiteko gertu, asteburuetan. Telefonoa: 639 27 82 54.

Debagoiena. Neska gertu edozein lanetarako. Telefonoa: 941 21 00 07.

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanetarako edo umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. 679 86 41 47.

Debagoiena. Pintore, igeltsero, peoi edo publizitatea banatzen lan egingo nuke. 679 86 41 47.

Debagoiena. Sukaldaritza ikaslea eguen, egubakoitz, zapatu gau eta domeketarako lan bila. 606 36 29 27.

Soldatzaile lanetan eta eraikuntzan esperientzia duen gizon batek lan egingo luke. 661 22 51 49.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Antzuola. Itzulpengintzako ikaslea umeei ingeles, euskara edo gaztelania eskolak emateko gertu, zapatu goizetan. 605 77 34 05.

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak emango nizkieke. 645 73 04 69.

Debagoiena. Ingeleseko eta errusierako eskola partikularrak emango nituzke. Maila guztiak. Gabonetan ere. 610 97 49 68.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Combi Ford Transit Salgai lekualdaketa arrazoiagatik. Tourneo 200-Commet LX modeloa. 2003ko abuztuan matrikulatua. 669 42 55 63.

Ford Escort 1.8 TD 90 ZP autoa salgai. Familiarra. Zortzi urte. Deitu 10:00etatik 21:00etara (Javi). Telefonoa: 667 47 21 42.

Golf 1.8 autoa salgai. Gasolina. 630 26 01 05.

Golf GTI autoa salgai. 652 77 71 08.

Kawasaki KLE trail motoa salgai. Egoera onean. 1.650 euro. 659 04 20 99.

KTM motorra salgai. 125 cm³. 2002koa. 656 71 32 47.

Mercedes Vito 110TD Combi L. 3 urte. Aire girotua, itxitura zentralizatua. 70.000 km. 16.500 euro. Telefonoa: 616 81 15 96.

Opel Astra GSI automobila salgai. 1992koa. 1.800 euro. 679 18 45 49.

Opel Corsa salgai. 1.4 gasolina. 10 urte. Egoera onean. 635 75 62 79.

Opel Kadett 1.600 autoa. Bost ate. 675 17 43 89.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

Opel Kadett GSI 2.0 autoa salgai. 3.000 euro. Idatzi 'opelsalgai@yahoo.es' helbidera edo: 629 47 30 51.

Peugeot 206 HDI 2.0 XS autoa salgai. Mikel. 686 02 29 79.

Renault Laguna Break 2.2 TD autoa salgai. 1998koa. Urtebeteko bermea. 7.000 euro. 646 20 42 94.

Suzuki Vitara autoa salgai. 1.6 16 v. Egoera onean. 6.900 euro. 650 71 03 22.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Mendiko behorra salgai. 943 78 61 92.

703. EMAN

Txakurra ematen dut. Arra. Urtebete. 943 76 21 39.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Pertsiar katua galdu zen abenduaren 8an Espoloian. Kanela kolorekoa da. Laguntza sarituko da. 943 76 23 00 edo 617 90 15 91.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Antzinako kamera. XX. mende hasierako Kodak argazki kamera. Apaingarri egokia. 100 euro. 696 76 38 42.

Antzinako banku bat salgai. 943 76 30 01.

Artzain txakurkumeak saltzen ditut. 680 55 17 65.

Babarrunak saltzen ditut. 943 76 33 78.

Baserriko hurrak salgai. 646 09 52 44.

Baserritar jantzia bi edo hiru urteko mutikoarendako. 943 79 41 31.

Eskiak eramateko parrilla salgai, Ford Focus autoarendako. Oso gutxi erabilita eta prezio onean. 687 73 68 74.

Goitibehera eta erremolkea opari. Deitu 19:30etik 21:30era. 669 99 72 07.

Jaunartzeko marinel jantzia salgai. Iaz erabilitakoa. 627 84 85 88.

Kamara digitala salgai. Samsung Digimax 301. 3.2 mega pixel. 16 MB-eko barne-memoria. Berri-berria. Gauez deitu. 686 20 03 58.

Kiwiak salgai Oñatiko Iraban baserrian. 10 kiloko kaxak. Kalitate-prezio ona. Deitu 18:00etatik 20:00etara. 943 78 18 32.

Kutxa gotor bat salgai. 1,710 m-ko altuera eta 850 cm-ko zabalera. 943 76 10 44 edo 627 84 95 19.

MP3 aparailua salgai. Estreinatu gabea. 627 84 85 88.

Pentium 21 ordenagailua salgai, estreinatu gabea. Inprimagailua, soinu-txartela eta CD-Roma. 627 84 85 88.

Soinu txikia salgai. 630 26 01 05.

Tronboia salgai. Egoera onean. 676 78 37 65.

802. EROSI

Piragua. Bigarren eskuko piragua erosiko nuke. 943 77 19 98.

803. EMAN

Bi artzain txakurkume oparitzen ditut. 943 76 35 58.

Hanketarako reflexoterapia masajeak ematen dira. Etxez-etxeko zerbitzua ere badago. 627 84 95 19.

804. HARTU

Aluminiozko kazola zaharrak hartuko nituzke. 943 79 34 03.

806. GALDU

Betaurreko graduatuak, marroi kolorekoak, galdu nituen Oñatin, orain dela bi aste, Bidebarrietatik Olarako bidean. Aurkitu badituzu, deitu!. 605 73 53 40.

808. BESTELAKOAK

Jdbug markako patinetea ahaztuta utzi nuen Marko dendaren aurrean Bergaran. 943 76 24 33.

Arizmendi ikastola

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

DEIALDIA
Eguna: 2005eko urtarrilaren 18a.
Lekua: Amaia antzokia. Arrasate.
Ordua: Lehen deialdia: 18:00.
Bigarren deialdia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

LEHENA.- 2005eko urtarrilaren 18ko Ohiko Batzar nagusiaren aktaren onespenari buruzko txostena eta bilera honetako akta onartzeko bazkideen izendapena.
BIGARRENA.- 2003-2004 ekitaldiko sozietate-kudeaketa aztertzea eta, hala balegokio, Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta Txostena), baita kudeaketa-txostena ere, onartzea.
HIRUGARRENA.- 2004-2005 ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpena eta kuoten igoerarako irizpideen onarpena.
LAUGARRENA.- Estatutu-aldaketak eta berregindako testuaren onarpena. (EESSn berregindako testuak eta hau eragiten dituzten zioen azalpen-txostena egoitza sozialean eskuragarri egongo dira).
BOSGARRENA.- Organo Sozialen berriztapena: Kontseilu Errektorea, Kontseilu Soziala eta Zaintza Batzordea.
SEIGARRENA.- Galde-erantzunak.

Mikel Lezamiz Bilbao
Lehendakaria

Aretxabaleta, 2005/01/08

Bazkide guztiek eskubidea dute ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 74.1, artikuluan aipatzen dituen agiri edo dokumentuak egoitza sozialean aztertzeko, baita horien testu osoa eskatzeko eta norberak eskuan edo etxean dohainik jasotzeko ere.

KM 0000
Azken automobilak!!!

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

GIARTZU
Kirol Elkartea

Muskulazio, Aerobika, Pilates Metodoa, Karatea, Tai-Chia, Capoeira, Defentsa Pertsonala

Boni Laskurain 3 • BERGARA
Tel.: 943 76 35 71

Urtarrilaren 2an
Pilates eskolak
hasiko dira

AIPAGARRI

Iñaki Aldekoa

OÑATI

Euskal literaturaren historiaz liburua atera du Erein argitaletxearekin. Euskarazko literaturaren gaineko historia-lan sendoa idatzi du: sorreratik gaur egun arteko gainbegiratua egiten du, Europako literaturaren testuinguruan. Egungo literaturaren atalean, egile eta lanen analisiak egin ditu.

Oihan Vega

BERGARA



Long Play film laburra zuzendu eta errealizatu du Oihan Vega kazetari bergararrak. Ikasketak bukatzeko egin zuen lana gelakide batzuekin batera, eta orain, Irungo Film Laburren Nazioarteko Jaialdian saria jasotzeko izendatu dute. Abenduaren azken astean egingo dute sari banaketa.

Agustin Untzurruntzaga

BERGARA

Etorkinen alde egindako lanagatik, Jaurlaritzako Justizia sailak René Cassin saria eman dio Koro Erdoizari, Agustinen emazteari. Koro pasa den abuztuan hil zen, eta Agustin Untzurruntzaga senarrak eta Enar alabak jaso zuten saria, Gasteizen, lehendakariaren eskutik.

HILDAKOAK

Carmen Lazkano Juaristi. Bergaran, abenduaren 9an. 91 urte.

Maria Atxaga Zendoia. Eskoriatzan, abenduaren 15ean. 82 urte.

Benito Martin Sevillano. Eskoriatzan, abenduaren 17an. 76 urte.

Jose M. Arejolaleiba Saez de Camara. Arrasaten, 17an. 54 urte.

Pablo Gallastegi Unamuno. Bergaran, abenduaren 20an. 58 urte.

Migel A. Gallo arrasatearrak eta **Mari Carmen Muñoz** zornotzarrak zilarrezko ezteiak egin dituzte. 1979ko abenduaren 15ean ezkondu ziren Larreako elizan, Zornotzan. Ismael, Bixen eta Rakelen partetik, zorionak!

Liher Eguren Toledo
Bergara • Abenduaren 19a • 3,845 Kg. Gurasoak: **Gurutze** (Antzuola) eta **Mikel** (Bergara). Argazkian, umea amaren besoetan eta argazkilariari begira.

Claudia Vazquez Jimenez
Oñati • Abenduaren 20a • 3,840Kg. Gurasoak: **Olga** (Oñati) eta **Jorge** (Oñati). Argazkian, jaioberria aitaren besoetan eta amaren ondoan.

ESKELA

Karmele Berasategi Mujika

Donostian hil zen 2004ko abenduaren 19an.

Zintzotasuna, lana...
Begirunea, indarra, Ikastolari maitasuna...
Zuk ereindako haziak!
Mila esker, Karmele!
Udaberrian loratuko diren
itxaropenean, agur.
Ikusi arte.

Aranzadi Ikastolako guraso, lankide eta ikasleak.
Bergaran, 2004ko abenduaren 23an.

URTEURRENA

Juan Antonio Martin De la Cruz

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 2an, Arrasateko Mesedeetako Amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Pablo Gallastegi Unamuno

2004ko abenduaren 20an hil zen, 58 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



—

Bihotzean min dut, min etsia,
negar ixila darion mina.
(X. Lizardi)

Bergaran, 2004ko abenduaren 23an.

Bergarako Udala

Lan eskaintza

Bergarako Udala lehiaketa-oposizio bidez hezkuntza teknikari bat aldi baterako kontratatzera doa.

Izangaien baldintzak:
- Lizentziadun agiria izatea edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
- 4. hizkuntza eskakizunaren pareko euskara ezagutza izatea, derrigorrezkoa.

Instantziak aurkezteko epea:
2005eko urtarrilaren 3ko eguerdiko 13,30ak arte.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan, 2004ko abenduaren 14ko GAOn, eta Udaleko webgunean (www.Bergara.es).

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak behar du

EUSKARA ZUZENTZAILEA

Baldintzak:
- Lizentziaduna izatea.
- Euskararen gaineko jakintza.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE

edo posta elektronikoz:
admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
2005eko urtarrilaren 13a

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak behar du

MAKETATZAILEA

Baldintzak:
- Euskaraz jakitea.
- QuarkXPress, Photoshop eta FreeHand programak ondo menperatzea.
- Esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE

edo posta elektronikoz:
admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
2005eko urtarrilaren 13a

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

GOIENKARIA
Eguena / 2004ko abenduaren 23a

‘Baneki’: gazte debagoiendarrendako pentsatutako lehiaketa, GOITBn

Otsailean hasiko da eta urtarrilaren 14a baino lehen eman beharra dago izena

UBANE MADERA

Aurten, Goiena Telebistaren apustuetariko bat jende gaztea-ri programazioan tarte zabalagoa eskaintzea izan da. Horren harira, urrian *Danbaka* lehiaketa abiarazi zuten. Laster berriz, 12-16 urteko gazteendako *Baneki* lehiaketa estreinatuko dute.

Danbaka lehiaketa bukatzen denerako dabil GOITB *Baneki* lehiaketa prestatzen. *Bergara Ezagutzen* eta *Oñati Gure Herria* lehiaketak abiapuntutzat hartuta eta telebista euskarri moduan erabilita, Debagoienerako lehiaketa prestatu gura izan dute *Baneki*-ren sortzaileek. Debagoieneko euskara elkarteetako gazte sailak Goienarekin elkarlanean abiarazitako ekimena da *Baneki*. Oro har, helburua da euskararen normalkuntzaren alde ibarreko euskara elkarteek garatutako ibilbidean beste pauso bat ematea, kasu honetan, ibarraren ezagutza bultzatzen, bereziki, gazteei zuzenduta

GOIENKARIA

Halako lanetan eskarmentu handia duen GOITBko aurpegi ezagun batek aurkeztuko du *Baneki*: Mikel Aranburu oñatiarrak.

ZER DA ‘BANEKI’?

Baneki galdera-erantzunetan oinarritutako lehiaketa da, 12-16 urteko Debagoieneko gazteendako pentsatuta, hain justu ere. Gure ibarraren gaineko ezagutza oinarritzat hartuta, astero lau laguneko bi taldek elkarren kontra lehiatu beharko dute *Baneki*-n. Saio bakoitzean irabazle diren taldeak hurrengo kanporaketara pasatuko dira, harik eta azkenean hiru talde geratu arte. Hiru talde horiek jokatuko dute finala.

GOITBko platoan jokatuko dituzte gazteek lehiaketako kanporaketak. Horrenbestez, gaineko herrikideek telebistaz jarraitu ahal izango dute lehiaketa.

Galdera-erantzun erako lehiaketa da; gure ibarraren gainekoa

Parte hartzen duten talde guztiek izango dituzte sariak; irabazleek bidaia bat

Debagoieneko 24 talde onartuko dituzte; talde bakoitzean, lau lagun

LEHIAKETAKO NONDIK NORAKOAK

Kanporaketa bakoitzean zenbait froga gainditu beharko dituzte taldeko lehiakideek. Batetik, talde bakoitzak bi minututako aurkezpen bideo bat grabatu beharko du, taldearen aurkezpena egiteko: taldekiden eta taldearen izenak, nongoak diren, zaletasunak… Bideoaren orijinaltasuna baloratuko dute froga horretan. Eta bestetik, lehiaketa egunean bertan bost froga gainditu beharko dituzte gazteek: hiru galde-erantzunezkoak, beste bat abileziarekin lotutakoa eta azkena ikusmena eta entzumena lantzekoa izango da.

LAGUNTZA IZANGO DUTE

Baina, era berean, esan beharra dago gazteek lehiaketa aldez aurretik prestatzeko aukera izango dutela, apur batean, behintzat. Izan ere, lehiaketan erabiliko duten galdera sorta *Goiena.net*-en argitaratuko dute. Horrenbestez, haiendako erantzuna aurkituz eta ikasiz gero, lehiaketako froga hori gainditzea dezente erraztuko zaie gazteei. Era berean, edozein zalantza argitzen laguntzeko, maisu bat ere izango dute aipatutako webgunean.

Bestalde, esan beharra dago lehiaketako frogak gainditu edo ez gainditu, parte hartzeagatik bakarrik, gazte guztiek izango dituztela opariak. Hori bai, finalera iristen diren hiru taldeek sari bereziak izango dituzte. Besteak beste, talde irabazleak Portaventurarako bidaia irabaziko du Eroski Bidaien eskutik.

IZENA EMATEKO BIDEA

Baneki-n izena emateko epea urtarrilaren 14ra arte dago zabalik. Lau bide daude horretarako: GOIENKARIAn agertuko diren izen-emateko orriak erabilita (behekoaren modukoak); *Goiena.net* erabilita; 7744 zenbakira mezua bidalita; ikastetxeetan izena emanda edo 943 76 36 61 telefonora deituta. 24talde onartuko dituzte lehiaketarako. Hortaz, lehenbailehen izena ematea komeni da. Ondo pasatzeaz gain eta etxera sari politak eramatez gain, gure inguruan eta euskaran sakontzeko gazteendako bide polita izan daiteke *Baneki*. Animatu!

Gabonak GOITBn: oporretako aisialdia betetzeko aukera ezin hobea

U.M.

Gabonei begira Goiena Telebista berritasunekin datorkigu: GOITBk ekoiztutako saioak eta bestelakoak aukeratu dituzte, Gabonetako oporraldian, aurreneko aldiz, ibarreko ikusentzuleei proposatzeko.

GOITBk ikasturte honetan ahalegin berezia egin du programazioa lantzeko orduan. Horren adibide dira ikasturte honetan estreinatu dituen marrazki bizidunak, telesailak, elkarrizketa saioak eta lehiaketak, esaterako. Eta horrek guztiak isla izango du, besteak beste, Debagoieneko telebistak Gabonetarako prestatu duen programazioan.

BETIKO MODUAN, BESTELAKO ORDUTEGIAN

GOITBko arduradun Oihane Agirrek zera adierazi digu: “Batez ere, eguerdi eta arratsalde parteko ordutegia beteko dugu. Adibidez, *Danbaka*-ko zenbait talde ikusteko aukerarik izan ez dutenek Gabonetan izango dute horretarako tartea; horrez gain, bereziki, gaztetxoenak hartu ditugu kontuan: *Bi eta Bat*, *Oinak Izarretan*, *Gure Lanbide Zaharrak*, *Ilunpean*, marrazki bizidunak, musika… Egia esan, denetik izango dugu. Azken baten, ohiko saioak emango ditugu, beste ordutegi batean”.



GOIB

***Danbaka*-ko kontzertuak izango dira.**

Debagoieneko gazteen lehiaketan parte hartzeko fitxa:
- Taldearen izena: . . . . . .
- Taldeko lau lehiakideen izen abizenak:
. . . . . .
. . . . . .
. . . . . .
. . . . . .
- Herria: . . . . . • Ikastetxea: . . . . . .
- Harremanetarako telefonoa: . . . . . .

Goitb Goiena Telebista

Ikustekoa!

Moztu fitxa hau, sartu kartazal batean eta bidali GOITBra: Otalora 31. 2500. Arrasate.
Edo etor zaitez GOITBko egoitzara eta utzi bertan.
Izena emateko azken eguna: urtarrilaren 14a.

urte berrian, erronka berriak

Zorionak!

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUENA, 2004ko abenduaren 23a

Atzeskua

AINTZANE IRIZAR

Maite Arizkorreta/ Postaria

Gabonak zoriontzeko postalak direla eta, lan handiagoa izango duzue, ezta?

Bai, hala da; urte batzuetan behera egin zuen Gabonak postalen bidez zoriontzeko ohiturak, jendeak telefonoa erabiltzen zuen eta, baina berriro ere boladan jarri da. Enpresek ere geroago eta gehiago bidaltzen dituzte postalak bezeroak zoriontzeko.

Dagoeneko, baina, seiluak zenbat balio duen ere ia-ia ez dakigu. E-postak ez du alde batera utziko ohiko posta?

Ezta pentsatu ere; papera papera da, eta jendeak papera jaso nahi du; horretan oso tradizionalak gara. Gainera, errazagoa da paperean irakurtzea.

Postari batek egunean zenbat gutun banatzen ditu?

700-800 inguru; Gabonen inguruan, berriz, gehiago; gaur bertan, esaterako, bakoitzak 1.300 bat banatu ditu.

Zela hartzen du jendeak postariaren bisita?

Hori asko aldatu da; lehen, jendea postariaren zain egoten zen. Familia guztiek zuten senideren bat kanpoan eta postariak senide horren berriak ekartzen zizkien; orain, berriz, jendeak ia-ia beldurra dio postariari. Izan ere, normalean, isunak edo ogasunaren gutunak izaten dira zertifikatuta iristen direnak.

Postariek begiak itxita ere egingo lukete egunerokо ibilbidea, ezta?

Bai, bai; urte asko daramatzaten postariek ez dute helbidea begiratu beharrik izaten, izena irakurtzearekin nahikoa izaten dute gutuna zein postontzitan bota behar duten jakiteko.

Postalak irakurtzeko tentaziorik izaten duzue?

Ezta pentsatu ere; gu dagoeneko aspertuta gaude horrenbeste postal, gutun eta telegrama ikusten.

Olentzerorendako gutunak jaso dituzue?

Bai, bai, egunero jasotzen ditugu garai honetan; gutun asko, gainera, zigilu eta guzti iristen dira. Ikastetxe batzuetatik ume taldeak etortzen dira irakaslearekin, eta nork bere gutuna ekartzen digu guk Olentzerori bidaltzeko.

Posta zerbitzuari erru asko botatzen zaizkio, gutun bat garaiz iristen ez denean. Esaten den bezain gaizki dabil?

Begira, hori esaten duenari nik beti erantzuten diot: "Fakturak iristen zaizkizu? Bai, ezta? Txekerik ez, ezta? Bada, ez dizkizulako inork bidaltzen".

Zenbat urte daramatzazu posta zerbitzuan lanean?

Hogeita hamazazpi urte; hemezortzi urterekin hasi nintzen, Donostian.

Horrenbeste urtean, anekdota ugari izango dituzu kontatzeko.

Bai, horixe! Behin, esaterako, iritsi zen gutun bat Ezpeleta lantegirako, eta zera jartzen zuen: Jose Mari *El Peleta*. Horrelako anekdotak mordoa ditugu.

"Lehen, jendea postariaren zain egoten zen; orain, berriz, beldurtu egiten dira"

"Olentzerorendako gutun mordoa jasotzen dugu; batzuetan, ume taldeak etortzen zaizkigu gutunak ekartzera"

"Gabonen inguruan, postari bakoitzak 1.300 bat gutun banatzen ditu egunean"

► *Oñati / 55 urte / Posta bulegoko arduraduna*

PIPERRAUTSA

Meta

Pilo guztiak ez dira meta. Belarra pila daiteke edozein eratan, eta piloak ez du izango ez buru eta ez buztan. Aldiz, belar pila antolatzen bada, meta bihurtzen da, zentzua hartzen du.

Egunotan, pilatzen ari zaizkit mugimenduak euskal politikan. Ordena handirik gabe: Anoetaren oihartzuna ahuldu egin zuten bonbek, baina inor gutxik ukatzen du bere garrantzia; Elkarrik temoso dirau alderdien mahaiarekin eta posible ikusten du hauteskunde ondorenerako; euskal sozialistek landu dute estatutua gainditzeko formula, eta Ramon Etxezarretak iristear ikusten du hainbeste itxarotako eguna; Ibarretxeren plana ari da bere ibilbidea osatzen, aste honetan sozialista abertzaleek lagunduta, eta gutxienez balio izan du gainditzeko orain arteko blokeoa; Zapaterorekin ez dira sakoneko arazoak konpondu, baina aukerak ez dira oraindik zapuztu...

Ez dakit zer falta duen juxtu pilo honek meta bihurtzeko. Baina demagun ETAk, erakutsi ondoren oraindik badela ekintzetarako gai, menia ematen duela; demagun Zapaterok, erakutsi ondoren badakiela tinko egoten euskaldunen aurrean, eten egiten duela presoen sakabanaketa eta onartzen duela ezker abertzalea hauteskundeetan; demagun alderdiek adosten dutela eztabaida mahaiaren sorrera, hauteskunde ondoren lanari ekiteko...

Demagun aurten, Olentzerok ez digula uzten ikatz piloa, baizik itxaropen meta.

MIKEL IRIZAR

iKER

SUKALDEAK: Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43
BAINUAK: Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42
ETA ORAIN OÑATIN ERE BAI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

Zorionak eta urte berri on!

FAGOR